


Covid-19a dela eta, euskal kultura-sektorerako intereseko neurri eta laguntzen gida

Kultura eta Hizkuntza
Politika Saila



Informazioa aldatu daiteke; **2020/07/09** eguneratu da
Egiatzatu eguneratzeak hemen:
<http://www.kulturklik.euskadi.eus/aholkularitza/>

Euskadi, auzolana

Sarrera

Gida hau Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak **kulturaren sektoreko profesionalei** eskaintzen dien **ezohiko aholkularitza-zerbitzuaren** barruan sartzen da.

Zer aurkituko duzue gidan?

Alarma-egoera ezarri zenetik, administrazio publikoek laguntza-lerro ugari abiarazi ditugu, enpresei eta profesionalei, oro har, zuzendutakoak gehienak.

Gida honen helburua da **gure ekosisteman aplikagarritasun handiagoa eta interes handiagoa izan dezaketen neurri eta laguntza** orokor nahiz espezifikoei buruzko informazioa modu ulergarrian, erabilgarrian eta egoki antolatuta eskaintzea. **Beraz, gida bizia da honako hau.**

Gainera, **Kultur klik** plataforma digitalean beste hauek ere aurkituko dituzu:

- **Aparteko laguntzen gida**, Eusko Jaurlaritzak kultura sektorearen beharrei eta berezitasunei erantzuteko berariaz diseinatu dituen laguntza-neurriei buruzko informazioarekin.
- **Arreta Pertsonalizatua emateko Zerbitzu Telematikoa**, [ipini esteka] lanarekin, zergekin, finantzekin... lotutako kontsultak eta zalantzak doan argitzeko. Saileko teknikariek eta lantalde espezializatu batek orientazioa eman eta erantzunago dizue posta elektronikoaren edo telefonoaren bitartez, gehienez 48 orduren buruan.

Egoera hau berria eta konplexua da guztiontzat. Bereziki, kulturari dagokionez. Sortzen diren premiei aurre egiteko konpromisoan oinarrituta, tresnak sortu ditugu neurriak eragile guztiengana hurbiltzeko, modu eraginkorrean iristeko.

COVID19 laguntza eta ekimen espezifikoez gain, kontsulta itzazu, halaber, kultura-diziplina bakoitzerako dagoeneko aktibatu diren laguntza eta dirulaguntza arrunten lerro guztiak

Aurkibidea

Laguntzak eta prestazioak

☒ ☑ 📁	COVID-19 alarma-egoera ezarri izanaren ondorioz jarduera eteteagatiko aparteko prestazioa	5
☒ ☑ 📁	Dirulaguntza eta laguntza publikoen arloko aparteko neurriak - ITXITA	7
☒ ☑ 📁	Ez ohiko langabezia-laguntza, aldi baterako kontratua amaitzeagatikoa	8
☒ ☑ 📁	Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzeko aparteko aukera	9
☒ 🏠 📁	Kulturako profesionalei laguntzeko programa - ITXITA	10
☒ 🏠 📁	Aparteko laguntzen deialdia kultura-sektoreko sozietate eta elkarteentzat, mikroenpresa kategorian	11
☒ ☑ 📁	Kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arlokoak - Estatuko Gobernua	12
☒ ☑ 📁	Ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalei premiazko laguntza emateko asistentzia-lerroa	17

Lan-arlokoak eta Gizarte Segurantza









☒ ☑ 📁	Langabeziagatiko subsidioari eta errenten urteko aitortpenari dagozkien aparteko neurriak	19
☒ ☑ 📁	Kontratua eteteko prozedurei eta ezinbesteko arrazoiak eragindako lanaldi-murrizketari dagozkien aparteko neurriak	20
☒ ☑ 📁	Gizarte Segurantzako kotizazio sozialen luzapena - ITXITA	22
☒ ☑ 📁	Enplegu-erregulazioko espedienteak malgutzeko neurriak	24
☒ 🏠 📁	Lan-bizitza eta Familia Bateragarri egiteko Programa hedatzea	28

Fiskalak – Zerga-arloko erraztasunak



☒ %	Zerga-ordainketa geroratzea (BEZ, PFEZ, SZ)	30
-----	---	----

Ekonomikoak eta finantzarioak







☒ 🏠 €	Gizarte Segurantzako kuotak eta lokalen errenta ordaintzeko aparteko lerroa – Lanbide	33
☒ ☑ €	ETE eta autonomoen likidezia bermatzeko abalen lerroa	36
☒ 🏠 €	ETE eta autonomoen finantza-laguntza emateko programa – Finantzen Euskal Institutua	38
☒ ☑ €	Hipoteka-maileguren luzamendua - ITXITA	40

 	Parke teknologikoetako (SPRI) alokairuak atzeratzea	42
 	Industrialdeetako alokairuak atzeratzea (SPRILUR)	44
 	Alokairu sozialeko errenten eta jabekideen erkidegoko gastuen ordainketak salbustea	46
 	SGAE fundazioa - Larrialdiko laguntza de ekonomikoak COVID-19a dela eta - ITXITA	48







Laneko osasuna eta segurtasuna

 	Ikus-entzunezko produkzioari 1. fasean berriz ekiteko segurtasuneko eta higieneko neurriak	51
---	--	----


Teknologikoak eta digitalak


 	ACELERA Pyme Ataria	53
 	Inplantalariak . Telelana ezartzeko eta aholkularitza emateko (SPRI)	54
 	Industria Digitala Programa. Telelana ezartzeko material teknologikoa erosteko laguntzak	56

Beste batzuk

 	Elektrizitatearen hornidurako neurriak enpresetarako	58
 	Blerrikuntzako eta ekintzailtzako programen eta zerbitzuen epeak malgutzea - Bizkaiko Foru Aldundia	59
 	Txoke Plana - Gipuzkoako Foru Aldundia	60

Eraginaren kodea

 Orokorra (sektoreko edozein enpresa edo profesional independenteri zuzendutako neurri orokorra)

 Espezifikoa (kultura-sektorerara zuzendutako neurri espezifikoa)

Erakundearen kodea

 Eusko Jaurlaritza

 Foru Aldundia

 Udala

 Estatukoa


 Europakoa

 Beste batzuk


Kategoria

 Laguntzak eta prestazioak

 Lan-arlokoak

 Fiskalak / Zerga-arloko erraztasunak

 Ekonomikoak eta finantzarioak

 Laneko osasuna eta segurtasuna

 Teknologikoak eta digitalak

 Beste batzuk



Orokorra

Estatukoa

Laguntzak eta prestazioak

COVID-19 alarma-egoera ezarri izanaren ondorioz jarduera eteteagatiko aparteko prestazioa

Onuradunak

Norberaren konturako langileak edo autonomoak –multzo horretan sartzen dira autonomo sozietarioak eta LAAB Langile Autonomoen Araubide Bereziari atxikitzea hautatu duten lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak–, honako egoera hauetakoren batean daudenak:

Jarduerak etenda dituztela martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera, alarma-egoeraren adierazpena dela eta .

Prestazioa eskatu aurreko hilabetean fakturazioa murriztu izana, gutxienez, % 75, aurreko seihilekoko fakturazioaren batez bestekoari dagokionez.

Ez da beharrezkoa beste prestazio batzuetarako eskatzen den gutxieneko kotizazio-epea betetzea. Araubideren batean alta emanda egotea baino ez da beharrezkoa, eta kotizazio sozialen ordainketan egunean egotea.

Neurri mota

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean hasi zenetik kontaktzen hasita, hilabete 1ez edo alarma-egoera amaitzen den hilabeteko azkeneko egunera arte – hilabete 1ez baino gehiagoz luzatzen bada– jarduera eteteagatiko aparteko prestazioa.

Zenbatekoa

Diru-kopurua kalkulatzeko, honako hauek izango dira kontuan:

oinarri arautzailearen % 70; jarduera eten zen egunaren **aurreko 12 hilabeteetako** oinarrien batez bestekoarekin kalkulatu da.

bestela, LAABaren **gutxieneko kotizazio-oinarriarekin**, baldin eta ezin bada egiaztatu 12 hilabeteko gutxieneko aldia.

Dekretuaren arabera, prestazio hau jasotzen den aldia kotizatutako aldiztat hartuko da; beraz, laguntza hauek jasotzen ari diren autonomoek eskatu ahal izango dute eta ez dituzte galduko jarduerari eustearekin baldintzatutako hobariak.

Epeak

8/2020 Errege Lege Dekretua indarrean hasi zenez geroztik alarma-egoera amaitu zen hilabetearen ondoko hilabeteko azken egunera arte (**2020ko uztailaren 31**).

Prozedura

Gizarte Segurantzak izendatutako erakundeek kudeatuko dute prestazioa (Gizarte Segurantzaren laguntzaile diren mutuek, edo SEPEk, babesa Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaile batekin estalita duten langileen kasuan).

Mutua gehienek atal bat prestatu dute beren webgunean, bete beharreko ereduarekin eta, ahal dela, telematikoki aurkeztu beharreko dokumentazioarekin.

Beste batzuk

Prestazio hau jasotzen bada, ezin izango da Gizarte Segurantzaren sistemako beste edozein prestazio jaso.

Langileak kargura dituzten enpresaburuek ere aurkez dezakete **ERTE** edo **aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea** beren langileentzat.

Ez da baja eman behar enpresa-jardueran.

Informazio gehiago

[8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikulua](#)

<https://revista.seg-social.es/2020/03/24/once-preguntas-y-respuestas-sobre-lanueva-prestacion-extraordinaria-para-autonomos/>

[Iturria: Tecnocampus fitxa](#)

Dirulaguntza eta laguntza publikoen arloko aparteko neurriak - ITXITA

Onuradunak

Dirulaguntzak lehendik emanda dituzten autonomoak, mikroETEak eta ETEak.

Neurri mota

Lehendik emanda dauden dirulaguntza eta laguntza publikoen epea luzatzea. Jardueraren epea, justifikatzeko epea eta gauzatze hori egiaztatze epea luzatu daitezke.

Diruz lagundutako edo laguntza publikoak jasotzen dituzten jarduerari (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.1 artikuluan aurreikusitakoei) dagokienez, osasun-alarmaren adierazpena egin aurretik emanda zeudenen kasuan gauzatze epeak luzatu daitezke.

Epeak

8/2020 Errege Lege Dekretua indarrean hasi zenetik apirilaren 30era bitarte.

Betekizunak

Larrialdi-egoera amaitu ostean, diruz lagundutako jarduera egitea ezinezkoa zela justifikatu beharko da.

Administrazioak jardueraren gauzatzea egiaztatuko du.

Informazio gehiago

Errege Dekretua, 54. art.: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2020/BOE-A-2020-4208-consolidado.pdf>

Ez ohiko langabezia-laguntza, aldi baterako kontratua amaitzeagatikoa

Onuradunak

Autonomoak eta aldi baterako langileak.

Neurri mota

Ez-ohiko sorospena ezartzen da, COVID19ak eragindako alarma-egoera indarrean hasi ondoren (463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa), gutxienez bi hilabeteko iraupena izan duen **iraupen mugatuko edo aldi baterako lan-kontratua iraungi** zaien eta, errentarik ez eta familia-erantzukizunak izateagatik, beste prestaziorik edo langabezia-laguntza eskuratzeko nahikoa kotizatu ez duten langileentzako.

Betekizunak

Ez-ohiko laguntza hau **gutxienez bi hilabeteko iraupena izan duten kontratuak** izan dituzten **aldi baterako langileei** –bitarteko, prestakuntzako eta erreleboko lan-kontratuak barne– zaie aplikagarria, kontratuok Alarma-egoera deklaratu ondoren iraungi badira, eta langileok, errentarik ez eta familia-erantzukizunak izateagatik, beste prestaziorik edo langabezia-laguntza eskuratzeko nahikoa kotizatu ez badute.

Bateraezina izango da beste edozein gutxieneko errenta, gizarteratze-errenta, gizarte-laguntzako soldata edo edozein herri administrazioek ematen duen antzerako laguntzak jasotzearekin.

Zenbatekoa

Ondorio Askotariko Errenta-adierazle Publikoaren % 80koa izango da laguntzaren zenbatekoa; hilabeteko 548,60 eurokoa da gaur egun adierazle hori.

Epeak

Errege Lege Dekretua indarrean hasi zenez geroztik alarma-egoera amaitu zen hilabetearen ondoko hilabeteko azken egunera arte (**2020ko uztailaren 31**).

Informazio gehiago

Errege Dekretuaren 33. artikulua: [11/2020 Errege-lege Dekretua](#)

Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzeko aparteko aukera

Onuradunak

Aurreko ekitaldian diru-sarrera txikiak izan dituzten pertsonak.

COVID-19aren krisia dela-eta 2020an % 50etik gorako errenta-jaitsiera izan duten pertsonak.

Neurri mota

Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera hileko prestazio bat da, kotizazio gabekoa, pobrezia-arriskuan dauden familientzat. Betekizun nagusia da 2019an diru-sarrera txikiak edo nuluak eduki izana, baina **COVID-19aren krisia dela-eta 2020an % 50etik gorako errenta-jaitsiera izan duten pertsonen ere ematen zaie prestazio hori jasotzeko aukera.**

Betekizunak

Hona hemen betekizun nagusiak:

- 23 urtetik 65 urtera bitarteko adina izatea (18 urtetik gorakoentzat ere, baldin eta ardurapean seme-alabak badituzte).
- Espainian legez urtebetez bizi izana.
- Gizarte Segurantzari urtebetez kotizatu izana.
- Beren kasa gutxienez urtebetez bizi izana familien kasuan, eta 3 urtez, bakarrik dauden pertsonen kasuan.
- Aldez aurretik prestazioak eskatu izana.
- Enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea.

Zenbatekoa

462 euro hilean bakarrik bizi den pertsona heldu batentzat. Bizikidetzta-unitateen kasuan, kopuru horri 139 euro gehituko zaizkio hilean, pertsona heldu edo heldugabe gehigarri bakoitzeko, **eta gehienekoa 1.015 euro izango da hilean.**

Epeak

Ekainaren 15etik aurrera, eskaera bat eginez kanal tematikoak erabiliz (Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa, laguntzaile birtual bat eta [simulagailu](#) bat aurkituko duzu, eta **900 20 22 22** zenbakira ere dei dezakezu)

Informazio gehiago

Fitxa hemen: [Departamento de Empleo y Políticas sociales](#)

Kulturako profesionaleri laguntzeko programa - ITXITA

Kulturako profesionalentzako aparteko laguntzen deialdia, helburu duena profesional horiei laguntzea beren jarduerak bertan behera edo etenda geratu badira Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta

Informazio gehiago

[Ohiko galderen gida](#)

[Dokumentu ofizialerako esteka](#)



Aparteko laguntzen deialdia kultura-sektoreko sozietate eta elkarteentzat, mikroenpresa kategorian

Kultura-eremuko mikroenpresei jarduerari eusten laguntzeko eta babesa emateko aparteko laguntzen deialdia, haien enpresa-egiturak iraunarazteko laguntza emanez eta COVID 19aren ondorioz etendako jardueren ustiapen-kontuen gainean inpaktu handia duten **gastu finko edo egiturazkoen partidak finantzatzuz**.

Informazio gehiago

[Ohiko galderen gidarekiko lotura](#)

[Dokumentu ofizialarekiko lotura](#)



Espezifikoa

Estatukoa

Laguntzak eta prestazioak

Kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arlokoak - Estatuko Gobernua

Maiatzaren 5ean 17/2020 Errege Lege Dekretua onetsi zen eta, horren bitartez, kultura-sektoreari laguntzeko eta zergak ordaintzeko neurriak onartzen dira, COVID-2019aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko.

Onuradunak

Kultura-sektorea, oro har

Neurri mota espezifikoak

- **Langabeziagatiko prestazioa** ikuskizun publikoetako artistentzat.
- **Finantzaketa eta likidezia lortu ahal izateko neurriak.**
- **Film luzeen (orokorrak eta selektiboak) eta film laburren produkzioarako laguntzen epe eta betekizunak malgutzea.**
- **Arte eszenikoetako, musikako eta kultura-egituretako proiektuetarako dirulaguntzak.**
- **Zinema-emanaldietarako laguntza.**
- **Zerga-kenkariak ikus-entzunezko produkzioari pizgarriak emateagatik eta mezenasgoagatik.**
- **Liburuaren sektoreari eta arte ederrei laguntzea**

Langabeziagatiko prestazioa artistentzat

Ikuskizun publikoetako Artisten Erregimen Orokorraren barruan sartzen diren artisten kasuan, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz ezin badiote lan-jarduerari eutsi, langabeziagatiko prestazio bat jaso ahal izango dute, **nahiz eta kotizazioaren gutxieneko aldia ez bete edo nahiz eta legez langabezia-egoeran ez egon.**

Langabezia-egoeran egon aurreko urtean kotizatutako aldien araberako iraupena izango du prestazioak. Aldi horiek batuta, **gutxienez, 20 egun kotizatuta** izan behar

dituzte aurreko urtean, eta egun horietako diru-sarrerak lanbidearteko gutxieneko soldataren bikoitza baino handiagoak izango dira.

Salbuespenezko neurria da hau, izan ere, osasun-krisialdiak eraginda 2020. urtean lan-jardunik gabe egondako aldietan baino ez baita aplikatuko, eta beste diru-sarrera batzuekin bateragarria izango da.

Ohiko galderen dokumentua: [Langabeziagatiko prestazioak](#)

Finantzaketa eta likidezia lortu ahal izateko neurriak

Enpresa txiki eta ertainek kreditua lortu ahal izateko eta euren finantzaketa-baldintzak hobetzeko asmoz, 20 milioi euro sartuko dira CREA -SGR elkar bermatzeko sozietatean.

CREA - SGR sozietateak, parte hartu nahi duten finantza-erakundeen laguntzarekin, abalak sustatuko ditu kultura-sektoreko ETEek bankuetako finantzaketa-lerroak eskuratu ahal izan ditzaten; guztira, 780 milioi euro izango dira. Horretaz gain, abalaren irekitze-kostuak (% 0,5) dirulaguntzaren kargura finantzatuko dira.

Kultura-sektoreko arlo bakoitzak (liburua, arte ederrak, arte eszenikoak, musika, zinema, ikus-entzunezkoa...) gutxienez 40 milioi euro eskuratuko ditu eta, hartara, likidezia berehalakoa eta espezifikoa eskuratu ahal izango dute.

Ohiko galderen dokumentua: [CREA - SRG](#)

Film luzeen (orokorrak eta selektiboak) eta film laburren produkziarako laguntzen epe eta betekizunak malgutzea

Laguntza orokor edo selektibo baten onuradun diren filmek **errodajeari ekiteko epe handiagoa** izango dute orain, alarma-egoera amaitzen denean hasiko baita epe hori kontatzen. Era berean, **beste hainbat epe ere handitu dira: kalifikazioa eta nazionalitate-ziurtagiria eskatzeko epea, errodajearen amaiera jakinarazteko epea, filmaren kostuak egiaztatze epea, estreinaldi komertziala egiteko epea, diru-sarreraren adierazpena egiteko epea eta filmaren kopia Espainiako edo dagokion Autonomia Erkidegoko Filmotekan aurkezteko epea..**

Horretaz gain, enpresek **emandako dirulaguntzaren % 50 kobratu** ahal izango dute, errodajearen hasiera jakinarazi ez badute ere; estreinaldia egin beharreko zinema-areto komertzialen kopurua % 50 murriztu da; kopiak egiteko, publizitaterako eta sustapenerako bideratu beharreko diruaren ehunekoa murriztu egin da; krisialdiaren eraginez ate atzean geratu diren gastuak (diruz lagun zitezkeenak) diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira oraindik ere.

Ezohiko moduan eta 2020ko abuztuaren 31ra arte, **zinemako film bat telebista-kateen edo eskatu ahalako bideo nahiz plataformen bitartez estreinatzen denean, hori ere estreinaldi komertzialtzat hartuko da**, eta ez du bete behar izango zinema-aretoetan estreinatze betebeharra.

Film laburrei dagokienez, laguntzaren ondoriozko betebeharrak betetzeko epeak ere handitu dira, eta krisialdiaren ondorioz proiektuan aplikatu ezin izan diren gastuak ere diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira.

Ohiko galderen dokumentua: [Film luzeak](#)

Ohiko galderen dokumentua: [Film laburrak](#)

Arte eszenikoetako, musikako, kultura-egituretako eta emanaldi-aretoetako proiektuetarako dirulaguntzak

Kultura-arloko proiektu eta jardueretarako dirulaguntza eta laguntza publikoei dagokienez, egindako gastuak (diruz lagun daitezkeenak) ordaintzeko aukera egongo da COVID19a dela eta proiektu edo jarduerak gauzatu ezin izan direnean, osorik edo partzialki. Aldi berean, artearen sektoreko profesionalek aurrerakinak eta kalte-ordainak jaso ahal izango dituzte (gehienez % 30) sektore publikoarekin kontratatutako emanaldiak atzeratu edo ezeztatu baldin badira, betiere kontratuak 50.000 eurotik beherakoak izanez gero.

38,2 milioi euro bideratu dira arte eszenikoen (dantza, antzerkia, zirkua) eta musikaren sektorerako; salbuespen moduan, **aparteko laguntzen** bitartez egingo da deialdia.

INAEM Espainiako Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalak kudeatutako diru laguntzak, eta arte eszenikoetako eta musikako egiturei eusten laguntzea dute xede, baita jarduera eszeniko eta musikalei eta kultura-proiektuei ere.

Zinema-emanaldietarako laguntza

Aparteko Gizarte Funtz bat sortu da zinema-emanaldiak bultzatzeko; zinema-aretoei dirulaguntzak emango zaizkie horretarako.

Laguntza horien helburua gastuak ordaintzea da, bai **osasan-neurri berrietara** (langile eta ikusleentzako arrisku-plana, edo materiala erostea, hala nola maskarak, desinfektatzailea, manparak eta abar) egokitzearen ondoriozko gastuak, bai **zinemak berriz irekiko direla jakinarazteko kanpaina eta ekintzen** gastuak, baita hainbat jarduera ere, hala nola eskola-kanpainen programa areagotzeko jarduerak, aretoetan zinema espainiarra sustatzeko publizitate esparru bat sortzeko jarduerak, eta erakunde-kanpainak.

Laguntza jasotzen duten aretoek **zinema europarrari % 30eko pantaila-kuota** eskaini beharko diote.

Ohiko galderen dokumentua: [Emanaldietarako dirulaguntzak](#)

Zerga-kenkariak ikus-entzunezko produkzioari pizgarriak emateagatik eta mezenasgoagatik.

Mezenasgoaren zerga-pizgarriak portzentajezko 5 puntu areagotu dira. Hartara, proiektu batean inbertitutako **lehenengo 150 euroen % 80ko kenkaria kendu ahal izango da**, eta gainerako zenbatekoaren % 35. Kenkariaren azkeneko ehuneko hori % 40koa ere izan daiteke baldin eta aurreko segidako bi ekitaldietan zenbateko horretako dohaintzak edo dohaintza handiagoak egin bazaizkio erakunde berari.

Gainera, zinema-produkzioetan inbertsioa egiteagatik kenkariaren gehieneko muga 3 milioitik **10 milioi** eurora igo da.

Laguntzaren ehunekoaren intentsitatea areagotu egin da filmaren zuzendaria emakumea, zuzendari hasiberria edo desgaitasuna duen pertsona den kasuetan, baita honako kasu hauetan ere: hizkuntza koofizialetan errodatutako filmak, film laburrak, dokumentalak, animazioa, koprodukzio europarrak eta Iberoamerikarekin batera egindakoak, eta kulturaren eta artearen aldetik balio berezia duten produkzioak.

Aplikatu beharreko zerga-kenkaria % 30era igo da lehenengo milioian, halaber, nazioko nahiz atzerriko produkzioetarako; film laburrak ere sartu dira zerga-kenkarietan; eta kenkariaren zenbatekoa 10 MM arte igo da.

Ohiko galderen dokumentua: [Zerga-pizgarriak ikus-entzunezkoen produkzioan](#)

Liburuaren sektoreari eta arte ederrei laguntzea

Liburuaren arloan, liburu-denda independenteei emango zaizkie aparteko laguntzak, **egiturei eta hornidura-kateari eustearren**.

Laguntza berri hauen aurretik, liburu elektronikoen eta prentsa digitalaren BEZa % 21etik % 4ra murriztu zen, eta liburu-dendak atzo zabaldu ziren, aurrez hitzordua hartuta.

Arte Ederrei dagokienez, **Espainiako arte garaikidea** indartzera eta Espainiako arte garaikidea erostera bideratzen dira laguntzak.

Neurri hauen hartzaille izan daitezke artista bisualak, arte-galeriak, kritikariak eta komisarioak, eta Kultura eta Kirol Ministerioaren Ondare Historikoaren Ondasunak Kalifikatzeko, Baliozkotzeko eta Esportatzeko Batzordearen bitartez Espainiako arte garaikidea erosteko ere erabil daitezke.

Beste laguntza batzuk

Halaber, egile-eskubideen kudeaketa kolektiboko erakundeek **asistentziako ekintzetara** bideratzen duten ehunekoa handitzeko aukera ere badago.

Horrekin batera, **aurreikusitako ekitaldi handietarako** epeak ere luzatu dira, hala nola Xacobeo 2021eko Interes Publiko Bereziko Gertaerak, Tokioko Joko Olinpikoak

eta Paralinpikoak edo Magallaes eta Elkanoren lehen zirkumnabigazioaren V. urteurrena; eta beste ekitaldi batzuk ere txertatu dira: Berlanga Plana, zinemagilearen jaiotzaren ehungarren urteurrena dela eta; Alacant 2021 Munduari Bira Belaontzian; Frankfurt 2021eko Liburu Ferian Espainia Ohorezko Gonbidatu izatea; Gran Teatre del Liceu antzokia eraiki zeneko 175. urteurrena; eta Teatro Real antzokiaren Opera Sustatzeko Plana.

Informazio gehiago

Errege Dekretuaren jatorrizko agiria zabaltzeko:

https://acobur-static.s3.amazonaws.com/archivos/0/0/10000/10494_BOE-A-2020-4832.pdf

Ikus-entzunezkoen sektoreko profesionaleri premiazko laguntza emateko asistentzia-lerroa - ITXITA

Netflix-ek, Acción Cultural Española-k (AC/E), Zinema Akademiak eta Kultura eta Kirol Ministerioako Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak (ICAA) hitzarmen bat sinatu dute, Espainian COVID-19aren krisiak ikus-entzunezkoen sektorean bereziki kaltetutako profesionalentzako asistentzia-lerro bat bultzatzeko.

Onuradunak

Espainiako nazionalitatea edo Espainian bizilekua izanik, Ikus-entzunezkoen sektorean —nagusiki, zinemaren eta fikzioaren alorrean (EJSN 5912, 5915 eta 5920)— besteren kontura edo autonomo gisa diharduten langileak, edota ikus-entzunezkoen sektoreari lotuta daudela sinesgarritasunez egiazta dezaketenak.

Neurri mota

Onuradun bakoitzak **1.000 euroko** ekarpen ekonomikoa jasoko du.

Ekarpen bakarra eta izenduna da.

Asistentzia Lerroaren diru-hornidura osoa milioi bat euro (1.000.000€) da, eta Netflix Inc-ek mundu osoko zinema- eta telebista-langileei laguntzeko jarri duen funts globalaren zati bat da.

Betekizunak

Ezinbesteko betekizunak:

- **Langabezia**-egoeran egotea eta diru-sarrerak **gelditutako, etendako edo atzeratutako kontratuen** mendean egotea COVID-19aren krisiaren eraginez, **eta langabezia-prestaziorako eskubiderik ez izatea**, edota
- prestazioren bat jasotzeko eskubidea izan arren, 2020rako Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (**950 €**) baino **txikiagoa** izatea.
- 2019ko ekitaldian guztira jasotako errentak, gehienez ere, 20.000€ gordin izatea.
- Beharrezkoa da gutxienez **2 hilabetez** jardun izana, alarma-egoera deklaratu aurreko **12 hilabeteen barruan**.

- Erregimen orokorrean artisten espezialitatean kotizatzen duten langileentzat, beharrezkoa da **gutxienez 15 egunez** (15 emanaldi edo zerbitzu-prestazio) jardun izana alarma-egoera deklaratu aurreko **12 hilabeteetan**.

Aurrekoaren osagarri,

- gorabehera bereziei lehentasuna emango zaie, esaterako, sei hilabetetik urtebetera bitarteko (eta bi urtera luzatzeko aukerarekin) iraupen luzeko baja ekar dezaketen **osasun**-egoera edo **kondizio medikoei**.
- **seme-alabak ardurapean edo adopzio zein familia-harrerako erregimenean izatea edota dependentsia duten pertsonak** ardurapean izatea egiaztatzen duten eskaerek ere lehentasuna izango dute. Guraso bakarreko familiei eta 12 urtetik beherako seme-alabak ardurapean dituztenei lehentasuna emango zaie.
- onuradunak **kalteberatasun bereziko** egoeran edo finantza-bazterkeriako egoeran egotea kontuan hartuko da, familia-unitatearen barruan bestelako diru-sarrerarik ez dutenei lehentasuna emanaz.

Dokumentazioa eta eskaerak aurkeztea

Link honetan aurki daiteke besteren konturako profesionalek zein autonomoek aurkeztu behar dituzten dokumentuen zerrenda.

Eskaera-inprimakia, berriz, honako **link** honetan dago eskuragarri.

Epea zabalik 2020ko maiatzaren 14ko 00:00etatik 2020ko maiatzaren 29ko 23:59ra bitarte.

Edozein kontsulta egiteko edo eskaerak aurkezteko prozesuan sor litekeen edozein arazo konpontzeko, idatzi info@fondoaudiovisualcovid19.com helbide elektronikora, edo deitu horretarako gaitutako telefonora: 670 507 159.

Informazio gehiago

Laguntza-funtsaren webgune ofiziala: <https://fondoaudiovisualcovid19.com/>

Deialdiko oinarrietan sartzeko: https://www.cineytele.com/wp-content/uploads/2020/05/Bases-Convocatoria-para-Línea-Asistencial-COVID-19_.pdf



Orokorra

Estatukoa

Lan-arlokoak eta Gizarte Segurantzza

Langabeziagatiko subsidioari eta errenten urteko aitopeneri dagozkien aparteko neurriak

Onuradunak

Besteren konturako langileak.

Neurri mota

Subsidioak ez dira etengo sei hilabeteko epea igaro ostean.

52 urtetik gorako langileentzako subsidioaren onuradunen kasuan, prestazioen ordainketa ez da etengo **luzatzeko eskaera edo errenten urteko aitopena ez aurkezteagatik**.

Informazio gehiago

Errege Dekretua, 27. art.: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2020/BOE-A-2020-3824-consolidado.pdf>

<https://www.sepe.es/HomeSepe/COVID-19.html>

Kontratuak eteteko prozedurei eta ezinbesteko arrazoiak eragindako lanaldi-murrizketari dagozkien aparteko neurriak

Onuradunak

Enpresak.

Neurri mota

Enpresei kontratuak eteteko eta lanaldiak murrizteko aukera ematea, baldin eta etenaldia edo murrizketa eragin duen zuzeneko arrazoiak COVID-19aren ondoriozko jardueraren galera bada, alarma-egoeraren adierazpena barnean hartuta.

Betekizunak

COVID-19aren ondorioz, alarma-egoeraren adierazpena barnean hartuta, ezinbestekotzat jotzen diren egoeretakoren bat jarduera-galeraren zuzeneko arrazoi dela argudiatu dezaketen enpresak; galeratzat hartuko dira honako hauek:

Jarduerak etetea edo bertan behera uztea.

Jendea biltzeko lokalak aldi baterako ixtea.

Murrizketak garraio publikoan eta pertsonen mugikortasunean.

Murrizketa salgaien garraioan.

Hornigairik ez izatea eta, horren ondorioz, jarduera ohiko moduan gauzatu ezin izatea.

Larrialdiko eta ezohiko egoerak izatea langileak kutsatu direlako.

Osasun-agintaritzak dekretu bidez agindutako prebentzioko isolamendu-neurriak hartzea.

Prozedura

Enpresa batek kontratuak eteteko edo lanaldiak aldi baterako murrizteko erabakia hartzen duenean deskribatutako egoeretan oinarrituta, honako hauek egin behar ditu:

Prozedura abiaraztea eskaera aurkeztuta; eskaerarekin batera aurkeztu beharrekoak:

- COVID-19aren ondorioz jarduera galdu izana azaltzen duen txostena.
- Jardueraren galera hori egiaztatzen duen dokumentazioa.

Eskaeraren berri ematea langileei eta txostena eta egiaztagirak helaraztea.

Lan-agintaritzak ezinbesteko arrazoia betetzen dela egiaztatu behar du (eraginpeko langileen kopurua edozein izanik ere), eta etetea edo lanaldi-murrizketa eragin duen arrazoia hori dela.

Lan-agintaritzak 5 eguneko epean eman behar du ebazpena, eskaera aurkezten denetik kontaktzen hasita.

Lan-agintaritzak txostena egiteko eska diezaioke Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari (aukerakoa), eta hori ere 5 eguneko epean egin beharko da.

Informazio gehiago

Errege Dekretua, 22. art.: <https://www.boe.es/boe/dias/2020/04/01/pdfs/BOE-A-2020-4208.pdf>

Gizarte Segurantzako kotizazio sozialen luzapena - ITXITA

Onuradunak

Enpresak eta norberaren konturako langileak, Gizarte Segurantzako edozein araubidetan sartuta daudenak.

Neurri mota

Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak 6 hilabeteko luzapenak ematen dizkie, interesik gabe, enpresei eta norberaren konturako langileei, betiere eskaera egiten badute eta ezarritako betekizun eta baldintzak betetzen badituzte. Gehienez ere 6 hilabetez aplikatzen da (maiatzeko, ekaineko eta uztaileko kotizazioetatik) eta, gero, ordainketa egin behar da, errekargurik eta interesik gabe.

Betekizunak

Burutzen diren jarduerak ezin izango dute etenda egon adierazitako alarma-egoeraren ondorioz (463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa).

- Enpresa** baldin bazara: luzapena Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketari dagokio, eta zerga-bilketa bateratuko kontzeptuengatik, betiere sortzapen-epea 2020ko apiriletik ekainera bitarte baldin bada.
- Norberaren konturako langilea edo autonomia** baldin bazara: luzapena Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketari dagokio, betiere sortzapen-epea 2020ko maiatzetik uztaile bitarte baldin bada.

Prozedura

- Enpresa** baldin bazara: luzapen-eskaera Datuak Elektronikoki Igortzeko Sistemaren (RED sistemaren) bitartez aurkeztu behar duzu, Gizarte Segurantzaren arloan. Enpresek eskaera indibidualizatuak aurkeztu behar dituzte, langileak alta hartuta dauden kotizazioko kontu-kode bakoitzaren arabera, Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketan luzapena eskatzen den langileari dagokionez, eta zerga-bilketa bateratuko kontzeptuengatik.
- Norberaren konturako langilea** baldin bazara: luzapen-eskaera RED sistema horren bitartez edo Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzaren (SEDESS) egoitza elektronikoan dauden bitarteko elektronikoaren bitartez aurkeztu behar duzu.

Epeak

Luzapen-eskaeren berri eman behar da Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian:

1. Sortzapen-epetegi dagozkien ordainketako arauzko epeen hasierako 10 egun naturaletan.
2. Luzapena eman dela jakinarazteko epea 3 hilabete izango da, eskaera egin denetik. Hala ere, jakinarazpen hori egindakotzat joko da kuoten likidazioetan luzapena benetan aplikatuz gero.

Luzapena eman dela RED sistemaren edo SEDESSaren bitartez jakinaraziko du GSDNak.

Beste batzuk

1. Luzapena ezin izango da aplikatu kotizazioko kontu-kodeetan, baldin eta enpresek salbuespena lortu badute enpresa-ekarpenaren ordainketan eta zerga-bilketa bateratuko kuotetan, kode horiei dagokienez (martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 24. artikuluan araututa dago).

2. Gizarte Segurantzarekiko zorren ordainketa geroratzea: enpresek eta norberaren konturako langileek Gizarte Segurantzarekiko zorren ordainketa geroratzeko eskaera egin dezakete, 2020ko apiriletik ekainera bitarte ordaindu behar dituzten zorren kasuan, eta eskatutako interes-tasan beherapen nabarmena eginda (% 0,5ekoa izatea erabaki da). Geroratzeko aukera hori aplikatu daiteke baldin eta enpresak edo norberaren konturako langileak ez badu beste geroratzerik indarrean.

Informazio gehiago

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila:

<https://www.covid19laguntzak.eus/es/buscar/?palabra=seguridad+social+moratoria>

Errege Dekretua, 34. art.: <https://www.boe.es/boe/dias/2020/04/01/pdfs/BOE-A-2020-4208.pdf>

Luzapenaren eskaera-eredua: <http://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/CotizacionRecaudacionTrabajadores/9896/38386/52203/1465>

Iturria: Tecnocampus fitxa

Enplegu-erregulazioko espedienteak malgutzeko neurriak (ABEE/ERTE)

Onuradunak

ETEak, autonomoak eta enpresak.

Neurri mota

Neurri horien bitartez, **enplegu-erregulazioko (ERTE)** prozedurak izapidetzeko epeak arintzen dira, prozeduren arrazoia ezinbesteko kausak edo arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo produkziokoak izanik ere.

Neurri horien bitartez, halaber, Gizarte Segurantzaren kotizazio-kuoten kontzeptupean aurreikusitako enpresa-ekarpenaren ordainketan ERTEak baimenduta dituzten enpresak ere salbuesten dira.

Neurriak

ERTEaren neurriak bi motatakoak izan daitezke:

- **Lan-kontratua etetea.**
- **Langileen lanaldia murriztea.**

Betekizunak

Ezinbesteko arrazoiak eragindako ERTEa honako hauek eska dezakete:

- Alarma-egoeraren adierazpenaren ondorioz jardueran jardun ezin duten enpresek. Hauexek dira, COVID-19aren ondorioz, ezinbestean aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente egoeran (ABEE) sartzen diren kulturaren sektoreko jarduerak:
 - o Ikuskizun publikoak.
 - o Denbora-pasa eta dibertsioa.
 - o Kultura- eta arte-jarduerak: antzokiak, auditorioak, zinema-aretoak, plazak, kontzertu-aretoak...
 - o Zirkua.
 - o Emanaldi-lokalak.
 - o Beste espazio eta instalazio batzuk: kontzertu-aretoak, hitzaldi-aretoak, erakusketa-aretoak, erabilera anitzeko aretoak, antzokiak, biltzar-pabilioiak.

- Aurrez aipatutakoekin bat datozen jarduerak dituzten bestelako lokalak eta instalazioak.
 - Aurrez aipatutakoekin lotuta dauden eta haietarako beharrezkoak diren jarduerak.
- COVID-19aren ondorioz, jarduerarekin jarraitzeko eragozpenak izan dituzten enpresek, honako hauek direla eta:
- jarduerak etetea edo bertan behera uztea.
 - jendea biltzeko lokalak aldi baterako ixtea.
 - murrizketak garraio publikoan eta pertsonen mugikortasunean.
 - murrizketa salgaien garraioan.
 - hornigairik ez izatea eta, horren ondorioz, jarduera ohiko moduan gauzatu ezina.
 - larrialdiko eta ezohiko egoerak izatea langileak kutsatu direlako.
 - osasun-agintaritzak dekretu bidez agindutako prebentzioko isolamendu-neurriak hartzea.

Arrazoi ekonomikoek, teknikoek, antolakuntzakoek edo produkziokoek eragindako ERTEa honako hauek eska dezakete:

- COVID-19arekin lotutako aldaketak justifika ditzaketen enpresek:
- Sistemen edo langileen lan-metodoen eremuan, edo produkzioa antolatzeko moduan
 - Enpresak merkatura atera nahi dituen produktu edo zerbitzuen eskarian.
 - Produkzioko tresna edo bitartekoen eremuan.
- Edo enpresaren emaitzetan egoera ekonomikoa negatiboa denean, egungo edo aurreikusitako galerak dauden kasuan, edo diru-sarrera arrunten edo salmenten murrizketa iraunkorra gertatzen denean.

Enpresaburuari dagokio espedientea aurkezteko betebeharra, Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzaren webgunearen bitartez. Bide hori baliatu ahal izateko, erakundeak ziurtagiri digitala izan behar du edo, bestela, erakundearen legezko ordezkari den enpresaburuak ziurtagiri pertsonala izan behar du (Izenpek emandako herritarren txartela, B@kq, NAN elektronikoa...).

Dena den, aholkularitza-enpresek, abokatu-langelek, lan-harremanetako gradudunen bulegoek edo enpresaburuaren elkarteek ere aurkez dezakete eskaera, enpresa interesdunaren edo autonomo interesdunaren izenean. Kasu horietan, borondatezko ordezkari emateko inprimaki normalizatua aurkeztu behar izango da.

Prozedura

Ezinbesteko arrazoiek eragindako ERTEa

- Prozedurari eskabide baten bitartez emango zaio hasiera. Eskabide horrekin batera honako hauek aurkeztuko dira:
- COVID-19aren ondoriozko jarduera-galera azaltzen duen txosten bat.
 - Jarduera-galera hori egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - Enpresak kontsultaldi bat izapidetu behar du langileen ordezkariekin (batzordea, langileen ordezkariak edo langile-batzordea ad hoc)
 - Langileei jakinarazi beharko zaie ERTEari hasiera emateko asmoa dagoela.

- Une horretatik aurrera, langileek 5 eguneko epea izango dute beren negoziazio-batzordea eratzeko.
- Lan-agintaritzak egiaztatu beharko du ezinbesteko arrazoiak daudela (eraginpeko langile kopurua edozein izanda ere), baita lanaldia etetea edo murriztea eragin duen arrazoia zein den ere.
- Lan-agintaritzaren ebazpena eskabidea aurkeztu eta 5 eguneko epearen barruan emango da.
- Lan-agintaritzak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren txosten bat (hautazkoa) eska dezake. Txosten hori ere 5 eguneko epean egin beharko da.

Arrazoi ekonomiko, tekniko, eta antolakuntzako edo produkziozkoek eragindako ERTEa

- Enpresak kontsultaldi bat izapidetu behar du langileen ordezkariekin (batzordea, langileen ordezkariak edo langile-batzordea ad hoc)
- Langileei jakinarazi beharko zaie ERTEari hasiera emateko asmoa dagoela
- Une horretatik aurrera, langileek 5 eguneko epea izango dute beren negoziazio-batzordea eratzeko.
- Arrazoi motaren arabera, dokumentazio espezifikoak aurkeztu beharko da egiaztatutako arrazoia justifikatzeko.
- Enpresak Gizarte Segurantzari bere langileen enpresa-kotizazioak ordaintzen jarraitu beharko du.

Kotizazioen ordainketatik salbuestea

Lan-agintaritzak ezinbesteko arrazoia baliozkotzen badu:

- **50 langiletik beherako** enpresek ez dute gizarte-segurantzaren kuota ordaindu beharko.
- Enpresak **50 langile edo gehiago baditu**, kuotaren % 25a soilik ordainduko du.
- Ezinbesteko arrazoitzat hartzen ez diren ERTEek langileen gizarte-segurantzaren kuotak ordaintzen jarraituko dute.

Epeak

Ezinbesteko arrazoiak eragindako ERTEa

- Baimena ezinbesteko arrazoiak eraginda eskatzen bada, 5 eguneko gehieneko epea dago lan-agintaritzak erantzuna emateko.
- Une honetan, administrazioaren isiltasun positiboa aplikatu daiteke.
- Atzeraeraginezko efektuz eska daiteke, alarma-egoera adierazi zen eguna hasieratzat hartuta.

Beste batzuk

- ERTEek irauten duten bitartean, langileei ez zaie baja eman beharko Gizarte Segurantzari, alta emanda jarraitzen baitute, kontuan hartu gabe enpresa kotizazioak ordaintzetik salbuetsita egon daitekeela (ERTEaren indarraldia langileek kotizatutako alditzat hartuko da).
- Gizarte Segurantzako kotizazioaren ordainketatik salbuestea ez da automatikoa ezinbesteko arrazoiak eragindako ERTEetan, baizik eta Gizarte Segurantzari eskatu behar zaio eta arrazoia egiaztatu behar da.

Jarduerarekin berriz hasten den egunetik aurrera kontratuak gutxienez 6 hilabetez mantentzearekin lotuta dago salbuespena.

- Administrazioaren isiltasuna dela eta ezinbesteko arrazoiak eragindako ERTEa izapidetu ondoren, ERTEa berrikusi eta baliogabetu ahal izango da. Garrantzitsua da ezinbesteko arrazoia ondo justifikatzea.
- **Enplegua gordetzeko konpromisoari dagokionez** (martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren seigarren xedapen gehigarriari jarraiki), enpresak eskuarki dituen kontratu mugagabeetarako joko da betetzat, eta ez obra, zerbitzu edo ordezkari dagozkien aldi baterako kontratu etarako (azken horiek aldi baterakoak edo obra jakin baterako izan ohi dira). Ez da bete gabetzat joko, kontratua hitzartutako denbora igaro edo obra edo zerbitzua amaitu izanagatik iraungitzen denean, edo berehala egin ezin badaiteke.

ERTEetarako informazio-bideak

LANERAKO ARABAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Tel.: 945 017 030

trabajoaraba@euskadi.eus

LANERAKO BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Tel.: 944 031 244 - 944 031 241

trabajobizkaia@euskadi.eus

LANERAKO GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Tel.: 943 023 224

trabajogipuzkoa@euskadi.eus

Informazio gehiago

[22.-24. artikulua. 8/2020 Errege LD](#)

http://www.mitramiss.gob.es/ficheros/ministerio/contacto_ministerio/FAQ_ERTES_der ivados_coronavirus.pdf



Lan-bizitza eta Familia Bateragarri egiteko Programa hedatzea

Onuradunak

Autonomoak eta enpresa txiki eta ertainetako eta mikro-enpresetako langileak

Neurri mota

Senitartekoak zaintzen ari diren pertsonentzako laguntzak handitu egin dira, eta aldatu egin dira lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko neurrien baldintzak, alderdi hauei dagokienez:

- o Aitatasun- eta amatasun-baimenak 16 astetan parekatzeko Programa,
- o eta ikastetxeak eta arreta-zerbitzuak itxi izanaren ondorioz adingabeak eta/edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeko edo COVID19 gaitzak kutsatutako edo gaitz horren eraginez isolatuta dauden pertsonen senitartekoentzako laguntzak.

Betekizunak

Aitatasun- eta amatasun-baimenak 16 astetan parekatzeko Programa:

- Malgutu egin da eskaria egin ez duen pertsona (beste gurasoa) laguntzaren xede den epealdian zehar Gizarte Segurantzaren alta emanda egotera behartzen duen baldintza; horrela, COVID19aren ondorioz eskaria egin ez duen pertsonak bere enpresarekin duen lan-harremana apurtuko balitz, laguntza ez litzateke etengo, beti ere apurtze hori laguntzaren epealdi horren barruan gertatu bada.

Adingabeak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzen dutenentzako edo COVID19 gaitzak kutsatuta edo gaitz horren eraginez isolatuta dauden pertsonen senitartekoentzako laguntzak:

- **Lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko laguntza** hauek ere malgutu egin dira, ondorengo neurriekin:
 - o Malgutu egin da laguntza hauek esleitzeko **gutxieneko epealdiaren** baldintza: **59 egunekoa zen orain arte, eta laburragoa izan daiteke**, beti ere epealdiaren datak bat baldin badatoz zentroen itxierarekin edo isolatuta egon behar duten pertsonen isolamendu-denborarekin.
 - o **Bikoiztu egin dira** laguntzen **zenbatekoak**.

- o Handitu egin da adingabeen adina: **14 urte arteko adingabeak estaliko dira**, seme-alabak zaintzeko helburuz eszedentzian dauden edo lanaldi murriztua duten langileei ematen zaizkien laguntzen kasuan.

Prozedura

Tramitazioa modu elektronikoa egiteko aukera dago, Eusko Jaurlaritzaren www.euskadi.eus webgunearen bitartez; han argitu ditzakezue zalantzak, edo informaziorako telefono-zenbaki honetara dei dezakezue: 012.

Epeak

Atzeraeraginezko efektua izango du laguntzen malgutzeak; **zentroak itxi ziren egunetatik ezarriko dira laguntzak.**

Beste batzuk

- **Informazio-telefonoa:** Herritarrentzako arreta – 012
- Familia-politika eta Aniztasuna – Lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko laguntzak: <https://www.euskadi.eus/informazioa/lana-eta-familia-bateragarri-egiteko-laguntzak/web01-a2famil/eu/>
- **8/2020 Errege Dekretua. I. Kapitulua. 6. artikulua:**
<https://www.boe.es/boe/dias/2020/03/18/pdfs/BOE-A-2020-3824.pdf>

Informazio gehiago

<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/61081-gobierno-vasco-aprueba-nuevas-ayudas-sociales-dirigidas-hacia-los-colectivos-mas-vulnerables-las-familias-consejo-gobierno-2020>



 Orokorra  Foru Aldundiak  Fiskalak eta zerga-arlokoak

Zerga-ordainketa geroratzea -Foru Aldundiak

BIZKAIKO Foru Aldundia

Zerga-arloko neurriak, Bizkaiko zergadunen eta, batik bat, mikroenpresen, ETEen eta langile autonomoen likidezia hobetzera eta ekonomiaren sektore kalteberenen gaineko eragin ekonomiko negatibo handiagoa prebenitzera zuzenduak.

Zehazki, martxoaren 16tik ekainaren 1era bitarte sor litezkeen zerga-betebeharrak mugatu, eten edo geroratzen dira, hala nola zerga-ordainketak edo autolikidazio eta aitorpenak aurkeztea.

Informazio gehiago

[BIZKAIKO ZERGA-ARLOKO NEURRIAK](#)

ARABAKO Foru Aldundia

Dekretu baten bitartez, zerga-arloko hainbat epe etetea edo luzatzea aurreikusten da, baita zerga-zorren ezohiko zatikatzea ere, krisialdiaren osteko egoera ekonomikoan ETEei eta autonomoei laguntze aldera.

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak [Zerga Premiazko Araugintzako 2/2020 Dekretua](#) onetsi du, premiazko zerga neurriak onesten dituen COVID-19ren inpaktu ekonomikoari erantzuteko.

Informazio gehiago

[ARABAKO ZERGA-ARLOKO NEURRIAK](#)


GIPUZKOAko Foru Aldundia

Dekretu baten bitartez, zerga-arloko hainbat neurri onetsi dira Covid-19aren osasun-krisiaren ondorioz, hala nola zergapeko jakin batzuentzat hiru hilabeteko autolikidazioak eta aitorten ez-aldizkako, informatibo eta laburtzaileak aurkeztu eta ordaintzeko epea zabaltzea.

Informazio gehiago

[GIPUZKOAko ZERGA-ARLOKO NEURRIAK](#)

[Ohiko galderak \(PDF\) Gipuzkoan onartutako zerga-neurriak](#)

 Orokorra  Estatukoa  Fiskalak eta zerga-arlokoak

Zerga-ordainketa geroratzea (BEZ, PFEZ, SZ) Espainiako estatua

Onuradunak

2019ko eragiketen bolumena 6.010.121,04 € baino txikiagoa duten pertsona fisikoak edo erakundeak.

Nork eska dezake

Titularrak berak edo haren izenean jarduten duen hirugarren batek (laguntzaile soziala izan daiteke, edo izapidea osatzeko ahalordeduna).

- PIN gakoarekin sartuz gero, norberaren zorrak soilik izapidetu daitezke.
- Laguntzaileak edo ahalordedunak laukitxoa bete behar du, geroratzea eskatzen duen zergapekoaren IFZrekin.

Zenbatekoak eta epeak

Gehienez 30.000 € geroratu daitezke

Martxoaren 13tik, ostirala, maiatzaren 30era bitarte (biak barnean hartuta) sortutako sortzapen eta ordainketak.

6 hilabetez, eta 3 hilabeteko gabealdiarekin

Lehenengo hiruhilekoari dagozkion ordainketak, batik bat, hartzen ditu eraginpean, ohiko moduan apirilaren 20an likidatzen diren aldetik; honako hauek izan daitezke:

- PFEZaren atxikipenak
- BEZa
- Enpresaburuen eta sozietateen ordainketa zatikatuak

Gabealdia 3 hilabetekoa izango da: lehenengo 3 hilabeteetan ez da ezer ordaintzen. Zergak 3 hilabeteak igaro ostean likidatzen badira, berandutza-interesak gehituko zaizkie.

Prozedura

Ohiko prozedurak erabilia, zergadunak ordaindu behar dituen eta geroratu nahi dituen zenbatekoak agertzen diren autolikidazioa aurkeztu behar da, aukera hau markatuta: «**Zorra aitortzea**».

OSO GARRANTZITSUA da "Eskaeraren arrazoia» atalean honako hau jartzea: «**ELD Geroratzea**» (**Errege Lege Dekretua, alegia**)

Informazio gehiago

Prozedurari buruz, [Zerga Agentziaren](#) webgunean

Iturria: Tecnocampus fitxa



Gizarte Segurantzako kuotak eta lokalen errenta ordaintzeko aparteko lerroa – Lanbide

Onuradunak

Enpresaburu indibiduala edo autonomia.

Ondasun-erkidegoetako eta sozietate zibiletako kideak, betiere dirulaguntza norbere izenean eskatzen bada.

Neurri mota

Mota honetako gastuetarako dirulaguntza:

Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzaren Erregimen Berezian **norberaren konturako langile gisa kotizazioa ordaintzeari dagozkion kuotak**. (Salbu eta Lanbide - Enplegurako Euskal Zerbitzuaren edo beste administrazio publiko batzuen dirulaguntza jaso baduzu lehendik kontzeptu horrengatik).

Kuotek alarma-egoera hau amaitu ondorengo bi hilabeteetan jasoko dute dirulaguntza.

Eta **negozio-lokalen errenta**, betiere lokalak familia-etxebizitzaren zati ez badira eta lokalaren errentatzailearekin ez badago bigarren mailara arteko odol-ahaidetasunik edo ezkontza-ahaidetasunik, eta ez bada errentari gisa jarduten duen pertsona fisikoaren edo juridikoaren bazkide edo partaide.

Errenta-kostuek martxotik aurrera (hilabete hori barne) eta alarma-egoera amaitu ondorengo bi hilabeteetan jasoko dute dirulaguntza.

Betekizunak

Jarduera eteteagatiko aparteko prestazioaren titularra izatea, COVID-19ak eragindako alarma-egoera ezarri izanaren eraginpeko pertsonen kasuan.

EAEen erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea (eta alarma-egoera amaitzen denean, gutxienez 4 hilabete gehiagoz erroldatuta egotea).

Enpresa-jardueraren egoitza soziala eta fiskala ez ezik, lantokia ere EAEn egotea (eta gutxienez 4 hilabete gehiagoz errolatuta jarraitzea).

Negozio-lokal baten errentari izatea, betiere eskatzailearen etxebizitzaren zati ez bada (ez da 2. mailara arteko ahaidetasunik egongo lokalaren errentatzailearekin, eta ez da errentatzailearen bazkide izango). Coworking-espazioak hemendik kanpo geratzen dira.

Esklusiboki jardutea etenda geratu den jardueran.

Ez jasotzea inolako laguntzarik kontzeptu edo helburu berarengatik.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egunean edukitzea.

Dirulaguntzak itzultzeko dagozkion ordainketa guztiak eginak edukitzea.

Penalki eta administratiboki zigortuta ez egotea.

Jarduerari berriro ekitea alarma-denboraldia igarotakoan.

Zenbatekoa

Gehienez ere **3.000 euro** onuradun bakoitzeko

Ondasun-erkidegoetako eta sozietate zibiletako kideen kasuan, dirulaguntza ez da 3.000€-tik gorakoa izango kide guztientzat.

Epeak

Eskaerak aurkezteko epea **2020ko irailaren 30ean** amaituko da.

Eskaera aurkezteko datatik aurrera, administrazioak 3 hilabete izango ditu ebazpenak erabaki eta jakinarazteko. Denbora hori igarotzen bada, eta erantzunik jasotzen ez baduzu, horrek esan nahi du eskaera onartua izan dela.

Ordainketa zati bakar batean egingo da.

Prozedura

Web formularioa [laguntza-lerro](#) honetako "Tramitazioa" atalean dago eskuragarri.

Formularioarekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira:

Jarduera eteteagatik aparteko prestazioa ematea onartzen duen ebazpena.

Negozio-lokalaren errentamendu-kontratua.

Hala badagokio, ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila eratu izanaren egiaztagiria.

Laguntzak ordaindu ahal izateko, eskatzaileak Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan agertu beharko du.

Kudeaketa elektronikoki egiteko behar diren baliabide elektronikoak ez dauzkaten pertsonak formularioa deskargatu ahal izango dute.

Laguntzen justifikazioa

Laguntza eman ondoren, eta 2021eko urtarrilaren 29ra arte, ordainketa hauen frogagiriak egiaztatu eta aurkeztu beharko dira:

negozio-lokalaren errenta ordaindu dela egiaztatzen dutenak, laguntza jaso den hilabetei dagozkienak.

kotizazioari lotutako kuoten ordainketenak

Egiaztatutako eta justifikatutako ordainketen zenbatekoa emandako dirulaguntza baino txikiagoa bada, diruz lagundutako zenbatekoa egokitu egingo da.

Beste batzuk

Deialdi honi buruzko kontsultak Lanbideren telefonoen bitartez egin daitezke:

Herritarrentzat: 945 160 600 / 630 305 452

Erakundeak eta enpresak: 945 160 601

Informazio gehiago

[Ohiko galderak](#)

[Laguntzetarako sarbidea](#)

<https://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/empresas-y-autonomos/>

ETE eta autonomoen likidezia bermatzeko abalen lerroa

Gobernuak, Gai Ekonomikoen eta Eraldaketa Digitalaren Ministerioaren bitartez, Abalen Lerro bat jarri du abian, 100.000 milioi eurokoa gehienez ere. Lerro horren helburua Espainiako enpresa eta autonomoei laguntza ematea eta jarduerari nahiz lanari eusteko beharrezkoa den finantzaketa lortuko dela bermatzea da.

Martxoaren 24an, Ministroen Kontseiluak Lerroaren lehenengo tartearen ezaugarriak onartu zituen. Tarte horren zenbatekoa 20.000 milioi eurokoa da, autonomo eta ETEen maileguak bermatzeko erabiliko denaren % 50a.

Onuradunak

COVID-19aren ondorio ekonomikoak izan dituzten enpresak eta autonomoak.

Neurri mota

Finantzaketa soldatak, fakturak, zirkulatzaila edo bestelako likidezia-premiak ordaintzeko, finantza-betebeharren eta zerga-betebeharren epemugak barne.

Zenbatekoa

Autonomoen eta ETEen kasuan, berme horrek finantzaketa-mailegu berrien eta finantzaketa-berriztapenen % **80** estaltzen du.

Gainerako enpresen kasuan, emandako finantzaketa berriaren % **70** eta berriztapen-eragiketetarako % **60** bermatzen da.

Epeak

Jaulkitako abalak emandako maileguaren epe bereko indarraldia izango du, eta gehienez ere **5 urtez** luzatuko da.

Enpresa eskatzaileentzako betekizunak

Ezin izango dira berankortasun-egoeran azaldu ondare-kaudimenari eta kredituari buruzko informazio-artxiboetan 2019ko abenduaren 31n.

Ezin izango dira konkurtso-prozeduran sartuta egon 2020ko martxoaren 17an.

Prozedura

Lerro hau Kreditu Ofizialeko Institutuak (ICO) kudeatuko du, finantza-erakundeen laguntzarekin.

Beste batzuk

Indarraldia: 2020ko irailaren 30a arte. Lerro hau atzeraeraginezkoa da. Abala eskatu ahal izango da 8/2020 Errege Lege Dekretua, 2020ko martxoaren 18koa, indarrean jarri ondoren formalizatutako eragiketarako.

Informazio gehiago

<https://www.ico.es/web/ico/linea-avales>

<https://www.ico.es/documents/19/51955/NP+L%C3%ADnea+Avaless+con+logo+sanidad.pdf/2ef8f357-6118-44ac-bbde-f236d7a63da9>

Iturria: Tecnocampus fitxa

ETE eta autonomoei finantza-laguntza emateko programa – Finantzen Euskal Institutua

Onuradunak

Enpresa txiki eta ertainek, pertsona fisikoek, enpresaburu indibidualek eta profesional autonomoek eskatu ahal izango dute finantzaketa.

Neurri mota

Zuzeneko maileguak finantzatzeko lerro urgentea autonomo eta ETEentzat % Oko interesean, likidezia-premiei erantzuteko eta 6 hilabeteri dagozkien egitura-gastuak finantzatzeko, 2020ko martxoaren 1etik aurrera.

Betekizunak

Helbide soziala, erabakitze-zentroa eta/edo gutxienez jarduera-zentro bat EAEn edukitzea.

Dirulaguntza bat lortu ahal izateko behar diren betekizunak biltzea; esate baterako, ez zaio bermerik emango EAEko Administrazioaren batekin edo erakunde autonomoekin betebeharren bat bete ez duenari.

Zerga-betebeharren ordainketa eta Gizarte Segurantzari dagokiona egunean edukitzea.

Kaudimen-prozeduran ez egotea.

Sexu-bereizkeria egiteagatik zehatuta ez egotea.

Eskaerarekin batera, dauden finantza-premien deskribapen txiki bat aurkeztea.

Kostu finantzagarriak

Finantzaketa ezin izango da erabili epe laburreko zirkulatzailerako ezerezteko; horrenbestez, enpresaren zorra igo dela aurkeztu beharko da; salbuespen izango dira 2020ko martxoaren 1etik aurrera Covid-19ren krisia dela eta egindako eragiketak.

Azken zenbateko finantzagarria kalkulatzeko, kontuan izango da enpresa edo pertsona eskatzaileari lehendik eman ote zaizkion egungo egoera berezia dela eta beste likidezia-erraztasun batzuk edo aldi baterako kostuak. Adibidez, zergak atzeratzea edo lan-kostuak murriztea ERTEa onartu delako.

Maileguaren baldintza orokorrak

Mailegua, EBBren abalarekin.

Zenbatekoak:

- Autonomoen kasuan: 5.000 euro gutxienez eta 50.000 euro gehienez.
- Gainerako kasuetan: 5.000 euro gutxienez eta 1.000.000 euro gehienez.

Epea: 5 urte.

Gabealdia: 12 hilabete.

Interes-tasa: Euriborra gehi urteko % 0,50. Interes hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak **diruz lagunduko du, kostua % Oren baliokidea izan dadin onuradunarentzat.**

Likidazioak: hiru hilean behin.

Bermeak: Elkargi SGR erakundearen abala. Elkargik erabaki eta kudeatuko du abala; horregatik, egokitzat hartzen dituen kontrabermeak eskatu ahal izango ditu.

Komisioak:

- Formalizazio-batzordea: Formalizatutako zenbatekoaren % 0,25
- Abalaren komisioa: urteko % 0,75eraino, EAEko Administrazioak diruz lagunduko du % 50ean.
- EBBren partizipazioen harpidetza eta ordainketa eragiketaren zenbatekoaren % 2ko balioan.

Prozedura

Bidali eskaera, arrazoiaren deskribapenarekin, eskatutako dokumentazioarekin eta ezohiko egoera dela eta dituzun premien zenbatekoarekin batera, ELKARGI SGR erakundera webgunere honen bitartez: <https://www.elkargionline.com>

Arabako egoitza: 945 23 12 12

Bizkaiko egoitza: 944 238 228

Gipuzkoako egoitza: 943 30 91 77

Informazio gehiago

<http://www.ivf-fei.euskadi.eus/ivf/lineas-financiacion/>

Bideotutoriala zure eskaera Elkargionline-n aurkezteko

Hipoteka-maileguen luzamendua - ITXITA

Zer hipoteka-zor edo hipoteka-mailegu

1. Ohiko etxebizitza

2. Osasun-larrialdiaren ondorioz egoera ekonomiko kalteberan dauden enpresaburuek eta profesionalak egiten duten **jarduera ekonomikoari atxikitako higiezinak**:

a) Onuradun potentziala **langabezia-egoerara** igarotzea edo, enpresaburua profesionala baldin bada, diru-sarreretan **galera** nabarmena izatea edo **fakturazioan gutxienez % 40ko** jaitsiera nabarmena izatea.

3. **Ohikoak ez diren etxebizitzak, alokairuan daudenak**, betiere hipotekaren zordun den pertsona fisikoak, etxebizitza horien jabe eta errentatzaileak, alokairuaren errenta jasotzeari utzi badio martxoaren 14an alarma-egoera indarrean sartuz gerotzik, edo alarma-egoera bukatu eta handik hilabetera arte ere ez badu jasotzen.

Onuradunak

Alokairu edo hipoteken zordunak, egoera ekonomiko kalteberan daudenak.

Neurri mota

1. **Hipoteka-zorra etetea hitzartutako epean** eta, beraz, luzamendua indarrean dagoen bitartean, hipoteka-maileguaren kontratuan jasota dagoen epemuga aurreratuko klausula ez aplikatzea.

2. Luzamendua indarrean dagoen bitartean, **erakunde hartzekodunak ezin izango du hipoteka-kuota ordaintzeko eskatu**, ezta kuota horretan sartzen den ezein kontzeptu ere (kapitalaren amortizazioa edo interesak ordaintzea), ez osorik, ez ehuneko bat. Interesak ere ez dira sortuko.

Betekizunak

Zordunak luzamendua eskatu ahal izateko, betekizun hauek **GUZTIAK** bete behar ditu:

1. **Langabezia-egoerara** igaro den hipoteka-zorduna edo diru-sarreretan galera edo **salmenten jaitsiera nabarmena** izan duen enpresaburu / profesionala (salmenten jaitsiera gutxienez % 40koa)

2. Luzamenduaren eskaera egin aurreko hilabetean, **familia-unitatearen diru-sarrerek, guztira, muga hauek ez gainditzea:**

a) Oro har, Hileko Ondorio Askotariko Errenta Adierazle Publikoa (hemendik aurrera, IPREM), hiru aldiz.

Hileko IPREM zenbatekoa = 537,84€.

b) Muga hori IPREM bider 0,1 aldiz handituko da, familia-unitatearen kargurako seme edo alaba bakoitzeko. Kargurako seme edo alaba bakoitzeko aplikatu beharreko gehikuntza IPREM bider 0,15 izango da, guraso bakarreko familia-unitatean dagoen seme edo alaba bakoitzeko.

c) Muga hori IPREM bider 0,1 aldiz handituko da, familia-unitatean dagoen 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko.

d) Familia-unitateko kideren batek % 33tik gorako desgaitasuna aitortua badu, mendekotasun-egoeran badago edo lan egitea eragozten dion gaixotasunen bat badu, a) azpiatalean aurreikusitako muga IPREM bider lau izango da, kargurako seme edo alaba bakoitzeko gehikuntzak alde batera utzi gabe.

3. Hipotekaren kuotari gastuak eta oinarritzko hornigaiak gehituta ateratzen den zenbatekoa **familia-unitateko kide guztiek jasotzen dituzten diru-sarrerara garbien % 35 edo gehiago** izatea.

4. Familia-unitatearen egoera ekonomikoa nabarmen aldatu izana, hipoteka-kargak familia-errentan dakarren esfortzua 1,3 aldiz, gutxienez, areagotu delako.

Epeak

Alarma-egoeraren eta martxoaren 17ko ELDaren indarraldia amaitu eta gehienez 15 egun geroago ere eska daiteke.

Prozedura

1. Luzamenduaren eskaera erakunde hartzekodunean aurkeztu behar da, honako agiri hauekin batera:

a) Langabezia-egoera: prestazioak kudeatzen dituen erakundeak egindako ziurtagiria.

b) Norberaren konturako langileen jarduera etetea:

- Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak edo autonomia-erkidegoan eskuduna den organoak egindako ziurtagiria.

c) Etxebizitzan bizi diren pertsonen kopurua:

- Familia-liburua edo izatezko bikotearen egiaztagiria.

- Etxebizitzan erroldatuta dauden pertsonen erroldatze-agiria, egiaztagiriak aurkezten diren uneari eta aurreko 6 hilabetei dagokienez.

d) Ondasunen jabetza:

- Jabetza Erregistroko indize-zerbitzuaren ohar soila, familia-unitateko kide guztiena.

- Etxebizitzaren salerosketako eskriturak eta hipoteka-bermedun mailegua emateari buruzkoak.

e) Zordunaren erantzukizunpeko adierazpena, Lege honen arabera nahikoa diru-baliabiderik gabekotzat hartzeko eskatzen diren betekizunak betetzen dituela adierazteko.

2. Erakunde hartzekodunak gehienez ere 15 eguneko epean ezarriko du.

3. Luzamendua eman ostean, erakunde hartzekodunak Espainiako Bankuan jakinaraziko du luzamendua eman izana eta zenbateko iraupena duen, kontabilitateko ondorioetarako.

4. Etearearen aplikazioa eskritura publikoan jaso eta Jabetza Erregistroan erregistratu behar da.

Informazio gehiago

7- 16 artikulua: [8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa](#)

[11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa](#)

Iturria: Tecnocampus fitxa

Parke teknologikoetako (SPRI) alokairuak atzeratzea

Onuradunak

Sarea osatzen duten hiru Parke Teknologikoetako batekin alokairu-kontratu soila edo erosteko aukeradun kontratua indarrean duen pertsona fisiko edo juridiko oro.

Neurri mota

Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak (Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea, Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea eta Arabako Teknologia Parkea) **zeharkako finantzazioa** eskainiko die parkeetan alokairuan dauden enpresei, **alokairu horren ordainketa atzeratuta**.

Epea

Hiru hilabete, beste hiru hilabeterako aukerarekin, 2020ko martxotik aurrera, orduan argitaratu baitzen 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14an hain zuzen ere.

Prozedura

- 1.- Osasun-alarmaren egoera bertan geratzen den hurrengo egunetik hasi eta 60 egun natural igaro arte egongo da zabalik ordainketa atzeratzea eskatzeko epea.
- 2.- Martxoaren 30etik (astelehena) aurrera, interesdun enpresek eskura dute atzeratzearen eskabidea egiteko inprimakia.

Eskabidea egiteko inprimakia: <https://encuestas.parke.eus/index.php/328741?lang=es>

Baldintzak

Atzeratutako kuotek –kontratu mota guztietan– **ez dute batere interesik sortuko**.

Gastu hauek atzera daitezke: alokairua eta komunitateko gastuak.

Informazio gehiago

Iturrirako esteka: <https://parke.eus/es/programa-de-medidas-de-estimulo-ante-el-covid-19-aplazamiento-del-pago-de-alquileres-en-empresas-de-la-red-de-parques-tecnologicos-de-euskadi/>

Industrialdeetako alokairuak atzeratzea (SPRILUR)

Onuradunak

Enpresa txiki eta ertainak eta mikro-enpresak (**industrialdeetan** alokairuan dauden **enpresak**).

Neurri mota

SPRILUR erakundearekin eta haren eskumendeko Sozietateekin kontratuak dituzten enpresei alokairuko kuotak **hiru hilabetez atzeratzea**, beste hiru hilabetez atzeratzeko aukerarekin.

Betekizunak

Alokairu-kontratu soilak zein **erosteko aukeradun alokairu-kontratuak** dituztenek izango dute neurri honen onuradun izateko aukera.

Alokairu-kontratuok **SPRILUR sozietatearekin edo haren eskumendeko beste edozein sozietatearekin sinatutakoak izan beharko dute.**

Enpresa eskatzaileak, 2020ko otsailerako, ordainduta izan behar ditu dagozkion kuotak.

Epea

2020ko martxoaren 26an hasi eta osasun arloko alarma-egoera amaitzen den hurrengo egunetik hasita, **60 egun naturaleko** epea dute enpresek ordainketa atzeratzea eskatzeko.

Prozedura

- Interesdunak **idatziz** (hobe posta elektronikoz) bidali beharko dio ordainketa atzeratzeko **eskaera** errentatzaileari (SPRILUR edo haren eskumendeko sozietatea), eskaera **justifikatzen duen txostenarekin** batera (orrialde batekoa, gehienez).
- SPRILUR-ek edo haren eskumendeko sozietateak kontuan hartuko du eskaera, eta ahalik eta lasterren egingo du batzarra eskatzailearekin, **eskaera aztertzeke eta atzeratzearen baldintzak erabakitzeke.**
- SPRILUR-ek edo haren eskumendeko sozietateak, eskatzailearekin **aldez aurretik adostu** ondoren, hurrengo kuotak **atzeratzeko** erabakia hartuko du.

Baldintzak

- Atzeratutako kuotek –kontratu mota guztietan– **ez dute batere interesik sortuko.**

Alokairu-kontratu soilak

- Alokairu-kontratu soilen errentamendu-kuoten atzerapenean, kontratuaren indarraldiko gainerako hilabeteetan berdinbanatuta ordaindu beharko dira atzeratutako kuotak, edo horretarako onartutako ordainketa-egutegiari jarraikiz.
- Hainbat urtetarako alokairu-kontratu soilen kasuan, kuotak berreskuratzeko epea ezartzerakoan kontuan hartuko dira, lehenik eta behin, eta jabearen iritzia jarraikiz, kontratu bakoitzaren berezko ezaugarriak (indarraldia, batez ere); nolana ere, lau urtekoa izango da, gehienez ere, atzeratutako kuotak berreskuratzeko epea.
- Kontratua amaitzen geratzen den denbora-epea urtebete baino laburragoa izango balitz, luzapena adostu ahal izango dute aldeek, baina inola ere ezingo da izan jatorrizko kontratuaren indarraldia baino luzeagoa.

Errentamendu-kontratua erosteko aukerarekin.

- Erostea aukeradun alokairu-kontratuaren errentamendu-kuoten atzerapenean, kontratuaren indarraldiko gainerako hilabeteetan ordaindu beharko dira atzeratutako kuotak, ordainketa-egutegiari edo horretarako onartutako finantzazio-taula berriari jarraikiz.

Beste batzuk

Eskabidea egiteko inprimakia

<https://sprilur.spri.eus/es/contacto-comercial/>

Harremanetarako bide orokorrak

- **Telefono-zenbakia:** 944 236 118
- **email:** sprilur@spri.eus

Informazio gehiago

Programa: <https://sprilur.spri.eus/f/COMUNICACION-medida-Aplazamiento-alquileres.pdf>

Alokairu sozialeko errenten eta jabekideen erkidegoko gastuen ordainketak salbuestea

Onuradunak

Kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden eta alokairuko **etxebizitza-parke publikoko errentariak** diren pertsona fisikoak.

Neurri mota

Apirilean eta maiatzean, Euskadiko parke publiko babestuko errentariak izanik, koronabirusak eragindako **kalteberatasun ekonomikoko egoera** bizi izaten ari diren pertsonak **ez dute alokairua eta jabekideen erkidegoko gastuak ordaintzeko betebeharririk izango**.

Prozedura

Izapidetze elektronikoa

Alokabideko, Biziguneko, Zuzkidura-bizitokien, Eusko Jaurlaritzaren edo ASAP programako alokairuko etxebizitza baten errentaria (kontratuaren titularra) baldin bazara

Neurri honen onuraduna izateko, Euskadiko etxebizitza publikoen parkeko etxebizitza baten alokairu-kontratu baten titularrek edo zuzkidura-bizitoki baten emakidaren onuraduna den edozein pertsonak **aurkeztu ahal izango du eskabide-inprimakia eta erantzukizunpeko adierazpena**, errentak salbuesteko eskubidea ematen duten egoeretakoren batean baldin badaude.

Aurrez aurreko tramitazioa

Bizi izaten ari garen alarma-egoera dela eta, aldi baterako bertan behera geratu da herritarrei aurrez aurreko arreta emateko zerbitzua. Bide telematikoz bakarrik aurkez daitezke eskabideak. Hala ere, eskabidea modu telematikoa egiteko beharrezko bitartekorik ez izanez gero, eta kontuan izanda aurrez aurreko arreta bertan behera uzteko erabakia aldi baterakoa dela, **eskabidea aurrez aurre egiteko ereduak jaitsi eta bete daitezke, eta aurrez aurreko arreta-zerbitzua berrezartzen denean entregatu**.

Gazteentzako Gaztelagun laguntza jasotzen baldin baduzu

Errentak ordaintzetik salbuesteko eskubidea ematen duten egoeran dauden eta Gaztelagun Laguntza-programaren onuradunak diren pertsonak **Gaztelagun programaren onuradunentzako eskabide-inprimakia eta**

erantzukizunpeko adierazpena aurkez dezakete, dokumentazioa Nire karpetaaren bitartez atxikita.

Bitarteko elektronikoen bitartez bakarrik egin beharko da izapidea. Aurkeztu beharreko agiriak inprimatu, eskuz sinatu eta berriro eskaneatu behar ez izateko, **modu elektronikoan sina daitezke, Adobe Acrobat Reader DC software-aren bitartez**. Horretarako, saka ezazu Tresnak - Ziurtagiriak aukera eta, jarraian, "Modu digitalean sinatu". Interneten aurkituko duzu horri buruzko informazioa, bilatzailean "agiria Acrobat Reader DCrekin sinatu" hitzak idatzita.

Baldintzak

Kalteberatasun ekonomikoko egoeratzat jotzen dira honako hauek:

- **Besteren konturako langileak**: osasun-alarmak eragindako krisiaren ondorioz, errentariak edo emakidadunak langabezia geratu izana
- **Autonomo edo enpresari** langileak: diru-sarreretan edo salmentetan % 40ko galera edo handiagoa jasan izana.

Informazio gehiago

Eskuratu...

- Inprimakia
- Erantzukizunpeko adierazpena
- Dokumentazioa
- Betekizunak
- Informazio gehiago

hemen: <https://www.euskadi.eus/alokairuak-ordaintzeta-salbuestea/web01-tramite/eu/>

SGAE fundazioa - Larrialdiko laguntza ekonomikoak COVID-19a dela eta. - ITXITA

Onuradunak

Autonomoak (**autoreei laguntzeko programa**).

Neurri mota

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen programa gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden autore kalteberenei zuzenduta dago; programa horretaz gain, une hauetan zailtasun handiagoak dituzten autoreei laguntzeko programa berrien sorta bat finantzatzeko duen funtsa abiarazi da. **Laguntza ekonomikoen** lerro berriak honako hauek dira:

- **SGAE-Korona funtsak**
SGAEko autoreei gehienez 3.000 euroko laguntza, koronabirusaren eraginez eta alerta-egoeraren ondorioz lanbide-jarduera eteteagatik ondorio ekonomiko larriak pairatzen ari badira, eta autore horien ezaugarriak direla eta, ezin badituzte erakundeak eskainitako beste laguntza edo babes-zerbitzu batzuk eskuratu.
- **Maileguen eta likidazio-aurrerapenen lerroa**
Autoreek maileguak eta aurrerakinak eskuratu ahal izango dituzte, SGAEren arauetan zehaztutako baldintzak betez gero.
- **Berehalako aurrerakinen edo larrialdiko maileguen lerroa**
Horretaz gain, berehalako maileguen lerroa zabaldu da; **2019ko azken seihilekoko azken likidazioaren % 30eko** larrialdiko aparteko mailegua eskaintzen da 2019ko azkeneko seihilekoko likidazioetan 3.000 eurotik 10.000 eurora bitarte jaso zituzten bazkideentzat, betiere alde aurretik eskatuz gero.
- **Laguntza publikoak eskatzeko aholkularitza-zerbitzua**
- **Etxez etxeko otordu-zerbitzua baliabide gutxien dituzten bazkide zaharrenentzat**

Zenbatekoa

- Gehienez **3.000 €-ko laguntzak bazkideentzat** (SGAE-Korona funtsak)
- 2019ko azken seihilekoko likidazioen **% 30eko berehalako aurrerakinen** lerroa

- Gehienez **6.000 €-ko laguntzak bazkideentzat** (Gizarte Larrialdietarako Laguntzen programa). Ordainketa zatikatua izango da beti, salbuespenezko kasuetan izan ezik

Epeak

Epea 2020ko apirilaren 15era arte zabaldu da

Betekizunak

SGAE-Korona funtsak

Koronabirusaren eraginez eta alerta-egoeraren ondorioz lanbide-jarduera eteteagatik **ondorio ekonomiko larriak pairatzen ari diren** bazkideak, eta bazkide horien ezaugarriak direla eta, ezin badituzte erakundeak eskainitako beste laguntza edo babes-zerbitzu batzuk eskuratu.

Eskaera aurkezteko azkeneko eguna apirilaren 15a da, asteazkena, 18:00etan.

Berehalako aurrerakinen edo larrialdiko maileguen lerroa

2019ko **azken sei hilekoko likidazioetan 3.000 eurotik 10.000 eurora** bitarte jaso zituzten bazkideak.

Larrialdiko berehalako maileguak maiatzaren 31ra arte eska daitezke

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak

Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusia (SGAE) **bozkatzeko eskubidea duten bazkide autore biziak**, beren buruarentzat edo beren familia-unitatearentzat, egiaztatutako egoeretan eta:

- **Lanerako eragozpen den gaixotasun larri eta puntual bat** dutenak
- **Gaixotasun larria eta 65 urte baino gehiago** dituztenak
- **% 33tik gorako desgaitasun**-maila edo **ezintasun iraunkor** partziala absolutua edo baliaezintasun handia aitortuta dutenak
- **Larrialdiko egoera ekonomikoari** eta premia larriari aurre egin behar diotenak
- Osasun Publikoan sartzen ez den gaixotasun larri batek eragindako gastuari aurre egiteko **diru-baliabiderik ez dutenak**
- Nork bere burua eta bere kargurako senitartekoak mantentzeko adina **diru-baliabiderik ez dutenak**
- **Etxegabetzeko premiamenduan eta/edo kalean geratzeko arriskuan** daudenak.

Prozedura

Eskaera guztiak posta elektronikoaren edo telefonoaren bitartez egingo dira.

Kontaktuak eta bestelakoak

Laguntzeko telefono-zenbakia

- o 915 036 800 (10:00etatik 13:00etara)

SGAE-Korona funtsa eta Maileguen eta likidazio-aurrerapenen lerroa

- o mjaspiazu@sgae.es ; ggarcia@sgae.es (SGAErekin harremanetan jartzeko Euskadin)
- o prestamosemergencia@sgae.es (kontaktu orokorra)

Gizarte-larrialdietarako laguntzak

- o emergenciasocial@sgae.es

Laguntza publikoak eskatzeko aholkularitza-zerbitzua

- o autonomos@sgae.es ; pymes@sgae.es ; vulnerables@sgae.es y asalariados@sgae.es

Larrialdiko eta gizarte-arloko beste laguntza batzuk

- Etxez etxeko otordu-zerbitzua bazkide zaharrenentzat (comidas@sgae.es)
- Autoreen arteko elkartasun afektiboko programa (isolamenduak egoera kalteberenean daudenengan eragiten dituen ondorio negatiboak leuntzeko)

Informazio gehiago

http://www.fundacionsgae.org/es-ES/SitePages/Programacion_Noticia.aspx?i=872

https://s3-eu-west-1.amazonaws.com/documentos-sgae/PDF_SGAE_2019/Socios/Area_Social/Ayudas_emergencia_Social_SGAE_2019_normativa.pdf



Ikus-entzunezko produkzioari 1. fasean berriz ekiteko segurtasuneko eta higieneko neurriak

Eraginpeko sektorea

Ikus-entzunezkoen sektorea

Neurri mota

Maiatzaren 9ko [SND/399/2020 Aginduaren](#) bitartez, alarma-egoera deklaratu ondoren ezarri ziren Estatu mailako zenbait murrizketa malgutu dira, normaltasun espezifiko berrirako trantsiziorako Planaren 1. fasea aplikatua; Agindu horretan, hainbat neurri ezartzen dira langileak beren lanpostuetan babesteko, une jakin batzuetan jende pilaketak saihesteko eta, bereziki, **ikus-entzunezko produkzioak berriro ere egiten hasteko beharrezkoak diren segurtasuneko eta higieneko neurriak** zehazteko.

Oinarrizko edukiak

Ikus-entzunezko produkzioaren jarduerari buruzko alderdi garrantzitsuenak neurriei, oinarrizko baldintzei eta lurralde-unitateei dagozkie.

Neurriak

- Laneko bitarteko ez-presentzialak sustatzea.
- Agindu honetan aurreikusitako jarduera-sektoreetako langileentzako higieneko eta/edo prebentzioko neurriak.
- Lan-eremuan jende-pilaketa masiboen arriskua prebenitzeko neurriak.
- Agindu honetan aurreikusitako jardueretan eskatu beharreko higieneneurriak.
- Zirkulazio-askatasuna.

Ikus-entzunezko lanen produkzioarako eta filmaketarako baldintzak

- Ikus-entzunezko produkzioako jarduerak.
- Prebentzioko eta higieneko neurriak COVID-19aren aurrean, ikus-entzunezko produkzioaren arloan.
- Filmaketak egiteko baldintzak.
- Konfinamendua arintzeko neurrien baldintzei buruzko informazioa, seinaleak eta babes-elementuak.

2020ko maiatzaren 11tik aurrera aplikatu beharreko Lurralde Unitateak.

Jardunbide egokien gidaliburua

Ministerioak Gida bat prestatu du, eta COVID-19aren zabalkundea eta kutsatzea prebenitzeko ezarritako laneko eta osasuneko arauetan oinarritzeaz gain, ikus-entzunezkoen sektoreko profesional ugariaren laguntza ere izan du Gida prestatzeko; profesional horiek dagozkien departamentuetan aplikatu beharreko neurri espezifikoak aurkeztu dituzte eta, beraz, fidagarriagoa edo sinesgarriagoa dela esan daiteke.

Gida kontsultatzeko garaian, unean uneko konfinamendua arintzeko fase bakoitza arautzen duten ministerio-aginduetan xedatutako baldintza espezifikoak izan behar dira kontuan, jarraibideak fase bakoitzean berezkoak diren neurrietara egokitzearen.

Iruzkin eta gomendioak informaziorako baino ez dira eta, beraz, ez dira lotesleak. Hona hemen edukiak:

1. Sarrera

- Jardunbide Egokien Gidaliburuaren helburua
- Koronabirusa (Sars-Cov2)
- Prebentzioko Oinarrizko Neurriak
- Erantzukizuna
- Gomendio nagusiak
- Test azkarrak eta Pcr testak
- Kontratu-gatazkak
- Ondorioak

2. **Gomendio nagusien** laburpena

3. Laneko Arriskuaren Prebentzioko (LAP) Berariazko Gomendioen Gidaliburua **Prozesuen eta Departamentuen arabera**

Era berean, langileei eta lantokian informazioa emateko erabil daitezkeen infografiak ere biltzen dira gidaliburuan:

- Maskaren erabilera
- Eskularruen erabilera
- Esku-garbiketa

Informazio gehiago

[IKUS-ENTZUNEZKO SEKTOREko LAN ARRISKUEN PREBENTZIOko neurri berezien jardunbide egokien gidaliburua](#) eskuratzeko link-a

[Kultura eta Kirol Ministerioaren laburpena](#) eskuratzeko link-a

[Maiatzaren 9ko SND/399/2020 Agindua](#) eskuratzeko link-a.



ACELERA PYME ATARIA

Onuradunak

ETEak eta autonomoak

Neurri mota

ACELERA PYME atarian, **ETEEi eta autonomoei laguntzeko** abiarazten ari diren **neurri guztiak biltzen dira**.

Atariak sektore pribatuarekin elkarlanean jarduten duenez, **erakunde laguntzaileek** ETEEi eta autonomoei eskaintzen dizkieten **baliabideetarako estekak** aurki daitezke, betiere **digitalizazioa eta telelanerako aukerak sustatzeko**.

Informazio orokorra

Acelera Pyme ataria leihatila bakarra da, eta sektore pribatuarekin elkarlanean jarduten duenez, erakunde laguntzaileek ETEEi eta autonomoei eskaintzen dizkieten **baliabideetarako estekak** aurki daitezke, betiere digitalizazioa eta telelanerako aukerak sustatzeko.

Acelera atarian, finantza bideak eta laguntza ekonomikoa, aukera teknologikoak, aholkularitza, gaur egungo testuinguruan aintzat hartu beharreko zibersegurtasun-arloko gomendioak eta ETEetan eta autonomoengan talentua sustatzeko jarduketak aurki ditzakete ETEek eta autonomoek.

Honako hauek biltzen ditu:

- **Informazio eguneratua** COVID-19ari aurre egiteko esanbidez mobilizatutako diru-kopuru eta neurri berriei buruz. Lehendik eskuragarri zeudenak biltzen dira, eta datozen asteotan abiaraziko direnak ere arian-arian txertatuko dira.
- Une hauetan ETEentzat eta autonomoentzat bereziki baliagarriak izan daitezkeen **aukeren, zerbitzuen eta tresnen bilduma**, sektore publikotik nahiz pribatutik eskaintzen direnak.

Informazio gehiago

<https://acelerapyme.gob.es/mas-informacion>

 Orokorra  Eusko Jaurlaritza  Teknologikoak eta digitalak

Inplantalariak. Telelana ezartzeko eta aholkularitza emateko (SPRI)

Onuradunak

Autonomoak, enpresa txiki eta ertainak eta mikro-enpresak.

Neurri mota

Telelana Ezartzeko eta Aholkularitza emateko zerbitzua, teknologia erabiltzen laguntzeko, langileek jarduerarekin edo jardueraren zati batekin jarraitu ahal izan dezaten. Honako gaietan eskainiko dute laguntza:

- Bulegoko ekipoetara urrutitik sartzea, funtsezko informazioa urrutitik eskuratzea...
- Bezeroekin, langileekin, hornitzaileekin... harremanetan jartzea, eta haiekin informazioa partekatzea.
- Agiri eta kudeaketetarako (eskariak, lanak, etab.) lankidetzan jardutea.
- Lan-banaketa edo proiektuen/eskarien egoera urrutitik kudeatzea.
- Agendak/entregak langileekin, bezeroekin... modu sinkronizatuan kudeatzea.
- Abian dauden jarduerak bizkortzea eta geolokalizatzea, jarduera arintze aldera.
- Urrutitik egiten diren lanak segurtasunez egiteko moduak ezartzea, gerta litezkeen ziber-erasoak saihesteko.

Kostua

Doakoa da aholkularitza, eta **telelana erraz eta berehala ezartzeko eta erabiltzeko doako tresnen edo tresna merkeen katalogo bat** du aholkularien lantaldeak; tresnok erabiltzeko, ez da beharrezkoa langileek aurretiazko prestakuntzarik izatea.

Eremuak

Soluzio teknologikoen **ezarpen** (aholkularitza, aukeraketa eta egokitzapena) **pertsonalizatua eta erabilgarria** eskaintzen zaio enpresa bakoitzari. Teknologia eguneroko lanean modu errazean txertatzeko, **aholkularitza mota bat baino gehiago** eska daiteke aldi berean: segurtasuna eta ziber-erasoak, kudeaketa digital optimizatua, fakturazio elektronikoa, presentzia eta posizionamendua Interneten, promozio aktiboa komunikabide digitaletan, gailu mugikorrek eta zereginak automatizatzea. Ezarpenerako hainbat tailer eta saioen bitartez egingo da, lan egiteko modu hau benetan txertatzeko helburuz.

Beste batzuk

Eskabidea egiteko inprimakia

<https://www.spri.eus/euskadinnova/es/portada-euskadiinnova/soluciones-para-micropymes/inscripciones-inplantalariak/589.aspx>

Harremanetarako bide orokorrak

- **Telefono-zenbakia:** 902 702 142
- **email:** info@spri.eus

Informazio gehiago

Programa: <https://www.spri.eus/es/inplantalariak/>

Liburuxka: <https://www.spri.eus/euskadinnova/documentos/3382.aspx>

Industria Digitala Programa. Telelana ezartzeko material teknologikoa erosteko laguntzak

Onuradunak

Enpresak, enpresa txiki eta ertainak eta mikro-enpresak (**industria-enpresak**)

Neurri mota

Ez-ohiko testuinguru honen ondorioz, une honetan **telelana ezartzea eta horretarako aholkularitza** behar duten **industria-enpresetarako larrialdiko laguntzak** jarri dira abian, **EIKTak** (elektronika, informazio eta komunikazioko teknologiak) **ezar ditzaten**.

INPLANTALARIAK programa osatzeko, enpresaren tamainaren arabera % 25 eta % 50 arteko diru-laguntzak emango dizkiete enpresei, enpresa txiki eta ertainetan telelana sustatzeko **hardwarea eta softwarea erosteko eta horiekin lotutako aholkularitza eta ingeniartzako gastuak** ordaintzeko.

Neurri horiek izen bereko programaren deialdiaren aurrerapena dakarte; programaren helburua da industria-enpresei eta produktuarekin eta industria-prozesuarekin lotutako zerbitzu teknikoak, diseinu- eta logistika-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei EIKTak ezartzeko laguntza ematea, euskal enpresen lehiakortasuna hobetzeko.

Zenbatekoa

EIKTak ezartzeko % 50eko diru-laguntza emango zaie mikro-enpresei eta enpresa txikiei, % 35ekoa enpresa ertainei eta % 25ekoa handiei, telelana sustatzeko hardwarea eta softwarea erosteko eta horiekin lotutako aholkularitza eta ingeniartzako gastuetarako.

Proiektu horrek **euskarazko softwarearen erabilera sustatzen du; beraz, % 5eko laguntza gehigarria eskura dezakete Hizkuntza-kudeaketaren Kalitatea ziurtatzen duen BIKAIN ziurtagiria duten enpresak eta/edo Berdintasun Plana dutenek (150 langile baino gutxiagoko enpresak).**

Enpresa onuradun bakoitzeko urteko gehieneko diru-laguntza **18.000 eurokoa izango da (diru-laguntza jaso dezakeen kontzeptu bakoitzeko, 9.000 euroko gehieneko hardware eta softwarearako; eta 18.000 euro gehieneko, aholkularitza eta/edo ingeniartzako gastuengatik).**

Prozedura

Inprimaki digital bidez eskatu behar da laguntza:

<https://app7.spri.net/industriadigitala/>

Betekizunak

- **2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako telelan-proiektuetarako.**
- Proiektuaren onartutako aurrekontu osoaren **% 50 gutxienez** izan beharko dira **Aholkularitza eta/edo Ingeniaritzako** gastuak.
- **Industria-enpresak eta produktuarekin edo industria-prozesuarekin lotutako zerbitzu teknikoak, diseinu- eta logistika-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek** eskura ditzakete Programa horretan jasotzen diren laguntzak.
- **Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko talde industrialetako enpresa nagusiek** ere jaso ditzakete laguntzak, eskatzen badituzte eta aurreko paragrafoko ezaugarriak osotasunean betetzen badituzte, betiere, hurrengo idatz-zatiko definizioarekin bat etorri eta kontuan izanik egoera ekonomiko kentsolidatua.
- Honako eskakizunak bete beharko dituzte, gainera, erakunde onuradunek:
 - o Euskal Autonomia Erkidegoan **industria-jarduerako lantoki** bat izatea, eta aurkeztutako proiektuak lantoki horretan eragina izatea.
 - o **Diruz lagunduko den jarduera** EAEn gauzatzea.
 - o **Zerga-betebeharrak** eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarekiko, Eusko Jaurlaritzarekiko eta SPRI Taldearekiko betebeharrak **beteta izatea**.
 - o EAEko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren **dagokion industria-epigrafean** alta emanda egotea egiaztatzea.
 - o Beste betekizun batzuk (ez egotea programaren araudiko 5. artikuluko 2c ataleko "Betekizun Orokorretan" xehatutako egoeretan).

Epeak

2020ko apirilaren 2tik 2020ko irailaren 25era. Dokumentazio guztia aurkezten denetik 6 hilabeteko gehieneko epean ebatziko da eskaera.

Harremanetarako

Eskabidea egiteko inprimakia

<https://app7.spri.net/industriadigitala/>

Harremanetarako bide orokorrak

- **Telefono-zenbakia:** 902 702 142
- **Helbide elektronikoa:** info@spri.eus

Informazio gehiago

<https://www.spri.eus/es/industriadigitala/>

<https://app3.spri.net/ayudaspri/paginas/ficha.aspx?idprograma=598>



Orokorra Beste batzuk Beste batzuk

Elektrizitatearen hornidurako neurriak enpresetarako

Elektrizitatea banatzen duten enpresek, hau da, Iberdrola, Endesa, Naturgy eta EDP enpresek zera erabaki dute, **enpresek kontratatutako potentzia elektrikoa murriztu ahal izango dutela alarma-egoerak irauten duen bitartean.**

Hartara, jarduera geldituta edo murriztuta duten enpresek elektrizitatearen faktura murriztu ahal izango dute potentziaren terminoaren bitartez, horixe baita enpresetako elektrizitatearen ordainagiritako kostu handienetako bat.

Araudiaren arabera, energia-hornidurako enpresek potentzia gutxitzeko edo handitzeko aukera ematen dute, baina urtean behin baino ez. Une honetan, konpainiak izapidetze-prozesua prestatzen ari dira eta, aurreikusten dutenez, neurria eraginkorra izan dadin, **enpresak potentzia doitzeko bi eskaera-orri sinatu beharko ditu:**

- Bata potentzien jaitsierarekin.

- Eta bestea gaur egungo potentziekin, izapidetze-datarik gabe; orri hori merkaturatzailera igorri beharko da enpresak negozioa berriz zabaltzeko asmoa duenean.

Kontuan izan behar da doikuntzak agian ez direla berehala aplikatuko. Hortaz, jarduerari berriz ekingo zaiola jakitean, ahalik eta aurrerapen handienarekin bidaltzea gomendatzen da; gutxienez, 48 ordu lehenago.

Iturria: Tecnocampus fitxa

Berrikuntzako eta ekintzailtzako programen eta zerbitzuen epeak malgutzea - Bizkaiko Foru Aldundia

Onuradunak

Bizkaiko Foru Aldundiaren **berrikuntzako edo ekintzailtzako programekin** lotutako enpresak eta pertsonak.

Neurri mota

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen dituen berrikuntzako edo ekintzailtzako programen epeak malgutzearekin eta luzatzearekin lotutako neurria; hor sartzen dira, esaterako, **Beaz, Seed Mikro, BIC Bizkaia, Design Kabi eta Bic Bizkaia Ezkerraldearen programak**.

Neurria aplikatuko zaien programak

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen dituen berrikuntzako edo ekintzailtzako programetan hainbat neurri hartzea.

- Bi hilabetetik hilabete batera murrizten da sozietateen gaineko zergaren 64 bis artikuluaen esparruan aurkeztutako **I+G+b arloko proiektuen** balorazio-epea.
- Sei hilabetez luzatu da **berrikuntza, sormen eta nazioartekotzeko 2019ko programak** egikaritzeko epea, eta gastu-kontzeptuak malgotu dira.
- Sei hilabea, BIC Bizkaia Ezk**Seed Capital Bizkaia**k kudeatzen dituen **Seed Micro maileguen eta 1, Bi eta FEIS funtsen kuotak itzultzeko epea**.
- **BIC Bizkaia, BIC Bizkaia Ezkerraldea eta Design Kabi inkubagailuetako alokairuko kuoten ordainketa hiru hilabetez atzeratzen da printzipioz**.

Informazio gehiago

Iturria: <https://info.beaz.bizkaia.eus/noticia/la-diputacion-foral-de-bizkaia-flexibiliza-los-plazos-de-sus-programas-y-servicios-para-empresas-y-personas-emprendedoras/>

Txoke Plana - Gipuzkoako Foru Aldundia

Onuradunak

Gizarte-zerbitzuek artatzen dituzten biztanleak, eta pertsona horiek artatzen dituzten zentroak.

Neurri mota

Gizarte Politiken departamentuaren mendeko **baliabide eta gizarte-zerbitzuen kudeaketara** bideratutako plana, lau helburu estrategikoren bitartez:

- COVID-19 gaitzaren kutsadura PREBENITZEKO eginahalak egitea
- Kutsatutako pertsonen kasuak dituzten zentro eta zerbitzuetan, ahalik eta gehien EUSTEA birusaren hedapenari.
- Larrirentzat identifikatutako egoerak zerbitzu eta baliabide berriekin INDARTZEA.
- Egoiliarren senitartekoei eta hurbileko jendeari INFORMAZIOA ematea, eta Gipuzkoako gizarteari osasun-larrialdiko egoerari erantzuteko hartzen diren neurrien berri ematea.

Jarduteko 7 ildo eta ez-ohiko 50 neurri ditu planak; hauexek dira **ildoak**:

1. Gizarte arloko eta arlo soziosanitarioko esku-hartzea eta osasun-larrialdiak eragindako egoera berrira egokitzea.
2. Zentroek krisiari aurre egiteko behar dituzten baliabideen balorazioa egitea eta beharrok asetzea.
3. Gaur egun dauden baliabideak, prestazioak eta zerbitzuak egoera berriak eragindako beharretara egokitzea.
4. Errealitate berriaren aurrean, kontratazioa eta administrazio-kudeaketa egokitzea eta sinplifikatzea.
5. Erabiltzaileen eta haien senitartekoen arteko harremanerako eta gizarte-eragileekiko lankidetzaren promozionatzeko sistema bat garatzea.
6. Komunikazio- eta prestakuntza-estrategia bat diseinatzea eta egikaritzea.
7. Egoeraren berri emateko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeke sistema bat sortzea.

Informazio gehiago

Jatorrizko agiria:

https://www.gipuzkoa.eus/documents/1932270/1932598/Txokeplana_cast/7c2f4776-fca7-f023-0224-937bcbclccf5

<https://www.gipuzkoa.eus/es/-/txoke-plana-aktibatu-da-covid-19-gaitzaren-hedapenari-aurre-hartzeko>

**Gida honetako edukiak ezin dira, inola ere, indarrean dagoen legetestua-
ren ordezkotzat hartu. Informazioa emateko soilik egin da. Kultura eta
Hizkuntza Politika Sailak eguneratu eta zuzentzeko eskubidea du,
eta ez du horren inguruko erantzukizunik hartuko bere gain.**

Informazio gehiago

Webgunea: <http://www.kulturklik.euskadi.eus/aholkularitza/>

Euskadi, auzolana

